



*txanela*

Irakaslearen gidaliburua  
(zirriborroa)

**4**

**..lan eginez goaz  
aurrera...**

(Txanela - Material globalizatua,  
Lehen Hezkuntza - 6. maila)

## TXANELA 6: LAUGARREN UNITATE DIDAKTIKOAREN GIDA (ZIRRIBORROA).

“...LANA EGINEZ GOAZ AURRERA...”

**Unitatearen gaia eta haria.** Unitate honetan, gure ikasleek, hainbat dokumentu (testu idatzi, informazio-testu zein testu literario), ardatz kronologikoa, grafiko, infograma, sare kontzeptual...) aztertu eta interpretatuko dituzte. Interpretazio horien bidez, asmakizunei eta aurrerapenei buruzko informazioa jaso eta horien gaineko gogoetak (onurak eta arriskuak) egin ahal izango dituzte. Horrez gain, Industria Iraultza (Euskal Herrikoa ere bai) ezagutu eta horrek eragindako aldaketa nagusien berri ere izango dute, industrializazio ondorengo gizartearen ezaugarri batzuk aztertzeke eta ondorioztatzeke aukera ere izanda.

Gaia dela eta, hainbat irtenaldi eta bisitaldi birtual egiteko aukera balia ezazue. Batetik, gaur egungo industria eta industria-prozesuak zuzenean ezagutzeko eta baita industrializazio aurreko, bitarteko eta ondorengo ondarea ikusteko ere. Euskal Herrian era askotako aukerak ditugu horretarako, eta norberak bere inguruaren arabera antolatuko ditu irtenaldiak. Hemen dituzue helbide batzuk:

- Euskal Herriko meatzaritzaren museoa (Gallarta): [www.museominero.net](http://www.museominero.net)
- Mirandaola. Euskal Burdinolaren museoa: [www.lenbur.com](http://www.lenbur.com)
- Rezola Zementuak. Museoa (Añorga): [www.museumcemento.rezola.net](http://www.museumcemento.rezola.net)
- Agorregi burdinola: [www.aiapagoeta.com](http://www.aiapagoeta.com)

**Proiektua.** Unitate honetako proiektua antzerki-muntaketa da. Muntaketarako prozesuak hiru fase izango ditu: antzerki-gidoia eskuratzea, adierazpen dramatikorako gaitasunetan trebatzea eta proba-saioak. Behin antzezpena prest dagoenean, hura iragarri (bertso eta kartelak osatuz) eta antzeztuko dugu.

**Gai honekin lotura duen materiala** (Ikastolen Elkarte)

- Industrializazio-garaia Euskal Herrian (DVDa, Ostadar proiektua)
- Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ondare arkitektonikoa: Ondare industrialia. CD-ROMa

## ZEHAR LERROAK, TREBETASUN SOZIALAK

Giza eskubideak, harremanak, bake-hezkuntza.	- Pertsonen arteko harremanak: - Gurasoen artekoak. Familia motak - Nesken eta mutilen artekoak - Elkarlana: laguntza trukatzeara
Ingurumenaren kontserbaziorako hezkuntza	- Kutsadura. - Kontsumoa. - Aurrerapenen erabileren inguruko gogoeta.

## EUSKAL DIMENTSIOA

Hizkuntza eta literatura	BAKARRIZKETA. <i>Haztearen abantailak</i> , J. M. Olaizola "Txiliku" ANTZERKI-GIDOIA. <i>Urrutiko aginte magikoa</i> , Montxo Iturbide NARRAZIOA. <i>Hemen da, badaukagu!</i> , R. Gosciny eta J. J. Sempé ANTZERKI-GIDOIA. <i>Denboraren makina</i> , Alaitz Olaizola BERTSOAK: <i>Bertsoak, zertarako?</i> , J. K. Zapirain, A. Egaña, N. Elustondo
Musika eta gorputz motrizitatea	<i>Kutsadura</i> , Joxean Ormazabal eta Imanol Urbietak. <i>Iturengo arotza</i> , Herrikoia. <i>San Simon eta San Juda</i> , Gabriel Aresti. <i>Ene Segurako Aitonak</i> , Mikel Azurmendi. <i>Gizon arruntaren koplak</i> , Xabier Lete.

## Sekuentzia tematikoa

### ASMAKIZUNAK

- Asmakizunak eta aurrerapena.
  - Onurak eta kalteak.
- Pertsonen arteko harremanak:
  - Gurasoen artekoak. Familia motak
  - Nesken eta mutilen artekoak
- Elkarlana: erabaki-hartzeak, ardura banaketak
- Makina sinpleak
- Esperientziak: palanka eta txirrika.
  - Eraiki, saiakuntzak egin eta ondorioak ateratzea

### INDUSTRIA IRAULTZA

- Ardatz kronologikoa
- Neolitoa
- Industria Iraultza
- Talde lana: bozeramalea

### INDUSTRIALIZAZIOA EUSKAL HERRIAN

- Industria Iraultza Ibaizabal itsasadarrean
  - Datu-taulak, lerro-diagramak
- Industrializazioa Euskal Herrian
  - Industria mapa.
- Langileak eta lan-baldintzak
- Ekoizpen prozesu baten urratsak

### INDUSTRIALIZAZIOAREN ONDORENGO GIZARTEA

- Lan-sektoreak. Nekazaritzaren bilakaera Euskal Herrian
- Industrializazioa eta biztanleriaren bilakaera
- Aurrerapenaren eragin negatiboak gaur egungo gizartearen
- Huts egiteak:
  - Ikasteko aukera gisa baliatzea
  - Elkarlana: laguntza trukatzeara.

# IKT jarduerak

Duela zenbait urte hasita, Ikastolen Elkarteak hezkuntza eremuko I+G+B egitasmoak eta proiektuak garatzen ari da. IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologia) alorrean hainbat urtetako eskarmentua metatua du, euskarazko eta euskal kulturaren ardaztutako software kurrikularra eta aisialdikoa ekoiztean aitzindaria izanez. Horren lekuko dira, besteak beste:

- **IKASYS** Ikastolen Elkarteak garatutako hezkuntza alorreko proiektu berritzailea. IKASYS proiektuak konpetentzien garapenerako beharrezkoak diren baliabideen sistematizazioa du helburu nagusia; horretarako, trebakuntzan, memorizazioan eta ulermenaren garapenean oinarritutako tipologia askotariko jarduera sorta handia eskaintzen du.
- **Txanela webgunea** ([www.txanela.net](http://www.txanela.net)). Lehen Hezkuntzarako IKT konpetentziak hainbat konstanteren inguruan lantzeko eta garatzeko bidea aurkituko da Txanela webgunean. Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira. Oraingoz, “Txanela Globalizatua” deritzan arlo multzoan (Euskara-Ingurumena-Plastika) txertatu dira IKT jarduerak.
- **Ostadar webgunea** ([www.ostadar.net](http://www.ostadar.net)). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta ikasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira han. Irakasleari, gida didaktikoa jardueraz jarduera zehaztuta eskaintzeaz gain, IKT jarduerak egiteko eta gidatzeko zehaztaperen guztiak ematen zaizkio. Ikasleari, IKT jarduerak proposatzeaz gain, haiek egiteko behar dituen baliabideak ematen zaizkio. Oraingoz, Ostadar proiektuko hiru arloetan txertatu dira IKT jarduerak: Naturaren Zientziak, Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura.

\* \* \* \* \*

## Virtusbooks plataforma

IKASELKAR argitaletxeak (Ikastolen Elkarteak eta Elkar argitaletxeak sortua) 2011-2012 ikasturtetik aurrera beste aukera bat eskainiko du. Beste baliabide bat eskaintzen da teknologia berrien eta IKT jardueren arloan. **Virtusbooks** (<http://www.virtusbooks.com/>) plataformaren bidez zoom-liburua eskaintzen zaie irakasleei eta ikasleei, ohiko ikasliburuen osagarri. Zoom-liburu horretan hainbat baliabide txertatu dira: bideoak, audioak, fitxategiak, estekak... Txanela webgunean eta Ostadar webgunean dauden hainbat IKT-jarduera ere gehitu zaizkio. Horrela, irakasleak gune berean izango ditu Txanela proiektuak (Ostadar proiektuak) dituen baliabide guztiak, hainbat proiektagailu, erreproduzitzailerik, etab. erabili beharrik gabe.

Hurrengo orrialdean agertzen den taularen bidez irakasleak jakingo du zein jardueratan izango duen baliabide digitaletara jotzeko aukera. Bestalde, irakasleak berak ere erantsi ahal izango ditu baliabideak, gero ikasleek arbel digitaletan edo bakoitzaren ordenagailuan ikus ditzaten.

## TXANELA 6

IKASLEAREN LIBURUA - 4. UNITATE DIDAKTIKOA

### BALIABIDEAK

Liburu digitalaren eta gidaliburuaren arteko lotura

GIDALIBURUKO JARDUERA	BALIABIDE MOTA	EDUKIA	TXANELAKO ORRIALDEA	LIBURU DIGITALEKO ORRIALDEA
0		Baliabideen taula	3	177
8		Asmakizunak eta aurrerapen teknologikoak	12	186
8		Hitz-errota: ondorioak	12	186
9		Irakurketa dramatizatua	13	187
10		Gustuko pasarteak	14	188
12		Antzerki-gidoiak	16	190
14		Gidoia idatzi	17	191
20		Neolitoa, lehenengo iraultza	24	196
21		<i>Iturengo arotza</i>	25	199
25		Industria Iraultza: kontzeptu-mapa interpretatu	30	204
26		"Garai modernoak" filma	31	205
28		Kartelak	33	207
31		<i>San Simon eta San Juda</i>	34	208
32/33/34		Industrializazioa Euskal Herrian	35	209

34		Industrializazioa Euskal Herrian	37	211
35		<i>Euskadin, Castillan bezala</i>	38	212
36		Lanari buruzko berriak	39	213
38		Industrializazioaren ondorioak, lan-sektoreetan	40	214
41		Industrializazioaren ondorioak, biztanlerian	43	217
44		<i>Kutsadura</i>	46	220
46		Bertsoz	47	221
46		<i>Gizon arruntaren koplak</i>	47	221
46		Bertsoz	47	221
51		Entzunaldia	50	224
52		Antzerkiaren bideoa egin eta argitaratu	51	225

## JARDUEREN ANALISIA

### 1. Azalaren behaketa eta elkarrizketa

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Unitatearen azala*

Beti bezala, lehen unitatearen azalari behatuz hasiko gara lanean, aurreikuspen estrategiak landu eta ikasleak motibatzeke asmoz. Elkarrizketa bideratzeko, Tough-en hizkuntza-funtzioetan oinarrituko gara, elementuak izendatuz, euren artean erlazionatuz, esandakoa arrazoituz eta iragartzeari bidea emanez.

- Zer adierazi nahi du “...lana eginez goaz aurrera...” izenburuak? Zer erlazio du aurretik landutako unitateekin? Ekar ezazue gogora “Izarren hautsa” abestia.
- Izenda itzazu irudian agertzen diren elementuak? Ezagunak al dituzu? Zerikusirik ba al dute batak bestearekin.
- Zer erlazio dago irudien eta izenburuaren artean?
- Zer buruzkoa izango ote da unitate hau? Irudiari behatuz, zer alderdi uste duzu jorratuko duzuela? Arrazoitu zure erantzuna.

Elkarrizketa bukatzean, ikasleek euren izena idatziko dute unitatearen hirugarren orrialdean.

### 2. Komikia eta aurre-ezagutzak

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 4-6 or.*

Komikia irakurtzeko tarte bat eman ikasleei eta ondoren, aurre-ezagutzetako orrialdea irakurri. Han adierazten dena egiten hasiko gara. Bukatzean, elkarrizketa unea irekiko dugu, ikasleek, komikian agertzen den eta aipatu ez den bestelako edozein gaien inguruan hitz egiteko.

### 3. Proiektuaren aurkezpena

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 7. or.*

Unitate honetako proiektua antzerki-muntaketa da. Muntaketarako hiru fase izango dira:

1. fasea: Antzerki-gidoia eskuratzea.
2. fasea: Adierazpen dramatikorako gaitasuna trebatzea:
  - Keinu- eta gorputz-adierazpena.
  - Inprobisazioa.
  - Ahotsaren erabilera.

3. Antzezlanaren proba-saioak egin, iragarri (sortutako bertso eta egindako kartelen bidez) eta antzeztu.

Proiektua zeuen ezaugarri eta baliabidetara egokitu beharko duzue. Hura antzezteko aukera anitz duzue:

- Talde osoak bakar bat antzeztea.
- Taldetxotan antolatuta, talde bakoitzak antzezen ezberdina egitea.
- Bururatzten zaizuen bestelako konbinazioen bat.

Edozein dela aukeratzen duzuen bidea, argi utzi nahi dugu, helburua, ikasle guzti-guztiak, antzezleri gisa, antzezpenean parte hartzea dela eta giro atseginean euren gaitasunak garatzen joatea, bakoitzak bere erritmorra, baina betiere aurrerapena ziurtatzeko laguntza eskainiz.

Proiektuaren prozesu guztia nola burutu bideratuta duzue unitatean zehar bonbilladun jardueretan. Irakasle, komenigarria da bonbilladun orriei begiratu bat ematea (batez ere proiektua gauzatzen den orriari eta sintesiko proiektuaren balorazio jarduerari), proiektuak proposatzen dituen ekintzen izaeraz jabetzeko eta proiektua bere osotasunean aurreikusteko, nola egin, taldean eta urratsez urrats erabakiko baduzue ere.

#### **4. Ikasnorabidea**

*Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 8-9. or.*

Unitateko sekuentzia tematikoaz jabetzeko, ingurumenari dagokion zutabea bertikalki irakurtzeari ekingo diogu lehenik eta behin, gaia zertaz doan jabetzeko. Ondoren, gelakideak hiru taldeetan antolatuko dira, eta talde bakoitzak atal baten irakurketa horizontala egingo du (hiru arloei dagokiena), ingurumeneko sekuentzia atal horretan, hizkuntza eta arte-hezkuntzan egingo dena irakurriz. Bukatzean, atalen ordenari jarraituz (goitik beherakoa), talde bakoitzeko bozeramaleak, atal horretan proiekturako landuko dena adieraziko dio talde handiari.

Gogoan izan, atal bakoitza landu aurretik eta bukatzean ere bai, ikasnorabidera egindako joan-etorria errazteko, ikasnorabidea gelan denok ikusteko moduan jartzea komeni zaizuela.

#### **5. Txoko zuria**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Ikasnorabidearekin batera hasierako atalari bukaera emateko, egin ezazue elkarrizketa talde handian, etxean izan eta txoko zurira ekar ditzaketen gauzen inguruan hitz egiteko. Proiektua antzerki-muntaketa denez, gogoan izan, aurpegia apaintzeko margoak, oihalak eta baita mozorroak ere ekar ditzaketela ikasleek etxetik. Agian kutxaren bat prestatzea ez legoke gaizki, material horiek guztiak bertan gordetzeko.



Bestalde, saia zaitezte txoko zurian **kartelei leku** egiten. Ikasleek ekar ditzatela gelara aurkitzen dituzten kartel iragarle guztiak, edozein dela ere iragartzen den produktua (antzerkia, liburuak, diskoak, elikagaiak...). Eta har dezatela denbora behatzeko. Duela urte batzuk Txalaparta argitaletxeak *Euskal Herriko Kartelak* izenburupean bilduma interesgarria argitaratu zuen. Interesgarria izan daiteke bilduma hori eskuratzea. Garrantzitsua izango da kartelei ondo behatzea, elementuak identifikatzea, teknikak ikustea, euren kartela egiteko irizpideak gara ditzaten.

## 6. Asmakizunak, onurak eta kalteak

*Lan egiteko era: Talde handian/Binaka/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 10-11. or.; 12. lan-koaderno, 35-37. or.; CD-ROMa*

Asmakizun eta aurrerapen teknologikoei buruzko gogoeta egitea egokitzen zaigunez, lehenik, aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu (taldean eta elkarrizketa bidez), eta ondoren, informazioa irakurri eta ulertzen saiatuko gara (testuak talde handian irakurriz eta lan-koadernoko jarduerak bakarka osatuz).

Lan-koadernoko ariketek, ondorioztatzeko ahalegina eskatzen dute, hitz jakin baten esanahia (lexikoa lantzeko ariketak), zein paragrafo oso bateko ideia ondorioztatu beharko baitute (ideia nagusia). Ariketa horiek erantzun anitzak (eta ez bakar eta bat bera) izan ditzakete; beraz, taldean jarduera berrikustean eta zuzentzean, horiek ondorioztatzeko erabilitako estrategiak konpartitzeak, alderatzeak, desadostasunak argitzeko ahaleginak, eta abarrek, hartuko dute garrantzi berezia. Hori bai, bide batez, sortutako esaldien egiturari ere erreparatuko diogu, beharrezkoa balitz, zuzenketak eta hobekuntzak bideratuz.

### LAN-KOADERNOKO JARDUEREN AUKERAKO ERANTZUN BATZUK:

- Aurrerapen teknologikoen aukerako azalpen bat duzue honako hau:  
*Aurrerapen teknologikoak, gizakiak bere lana errazteko / bere bizimodua errazteko / lan egoera hobetzeko... emandako urratsen artean... asmatu dituen makinak eta erremintak daude. Esate baterako, jostorratza, horri esker arropak josi baitaitezke.*

- Tresna hitzaren zein bi sinonimo daude zerrendan?

*1. erreminta      2. lanabes*

- **Ertz edo mutur zorrotzeko tresnak:**

*Jostorratza, zizela, ziria, daratulua, trintxa*

- **Ardatz edo erdigune baten inguruan biratzen duten tresnak:**

*Gurpila, tornua, txirrika, daratulua*

**Aurreko bi ezaugarriak betetzen dituen tresna: daratulua**

- Azter ezazu *karraskagailu* hitzaren osaera, eta ondorioztatu eta azaldu esanahia.

2. Hozkaka, zati txikiak kenduz, poliki-poliki jan edo higatu.

orratz

tresna

produktu

higatu

leundu

zorrotz

gastatu

desegin

Karraskagailuaren aukerako definizio pare bat:

- *Gauzak hozkatu, zatiak kendu, higatu, leundu, desegin edo gastatu egiten dituen tresna da karraskagailua.*

- *Karraskagailua, hainbat material/gauza/ elementu, hozkaka, zati txikiak kenduz, poliki-poliki higatu, desegin, gastatu... egiten dituen tresna da.*

- Lerro bakoitzeko hiru hitzetatik bi sinonimoak dira. Seinala itzazu.

<input checked="" type="checkbox"/> asmakizuna	<input checked="" type="checkbox"/> asmakaria	<input type="checkbox"/> asmoa
<input type="checkbox"/> materiala	<input checked="" type="checkbox"/> zura	<input checked="" type="checkbox"/> egurra
<input checked="" type="checkbox"/> aurrerakada	<input type="checkbox"/> atzekoz aurrera	<input checked="" type="checkbox"/> aurrerapena
<input type="checkbox"/> kaltea	<input checked="" type="checkbox"/> onura	<input checked="" type="checkbox"/> mesedea

- Lan-koadernoko 37. orrialdeko erantzunak: b (onura), a (onura).

Gogoan izan CD-ROMean, ideia nagusia lantzeko jarduerak dituzuela.

## 7. Kausazko esaldiak (-elako, bait-) eta baldintzazko aditzak

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: 12. lan-koadernoan, 35-41. or.; CD-ROMa*

Aurreko jardueraren jarraipen gisa, orain, asmakizunen inguruan hausnartzeko urratsa emango dugu, asmakizun horiek balioetsiz, garrantzia eta eragozpenak adieraziz. Beraz, talde handian, jarduera irakurri eta pare bat adibide jarriko ditugu arbelean egin behar denaren eredu gisa.

Nahi baduzue, asmakizunen zerrenda handi bat ere osa dezakezue arbelean denon artean, eta ikasle bakoitzak zerrenda horietatik aukeratu bere hamarrak.

Jarduerak asmakizunen gaineko argudioak ematea eskatzen duenez, lan-koadernoak kausazko esaldiak (-elako, bait-) eta baldintzazko aditzen erabilpenean trebatzeko ariketak eskaintzen ditu. Ikasleek bakarka osatuko dituzte, baina taldean berrikusi eta zuzenduko dituzte.

Azken lana, ikasleak lan-koadernoan ikasitakoa bere lanari aplikatzea izango da, hau da, koadernoan idatzitako hamar asmakizun horiei dagokien balorazioa (garrantzia eta eragozpenak) idaztea.

Gogoan izan CD-ROMean kausazko esaldiak eta baldintzazko aditzak lantzeko hainbat jarduera dituzuela.

- **Lan-koadernokoa** (40. orrialdea)

- Nire etxean daratulturik ez **balego**, ezingo (guk) **genituzke** koadroak zintzilikatu.
- Nola edango (zuk) **zenuke** ura, etxean edalontzirik ez (zuk) **bazenu**?
- Ile-apaintzaileak guraize dotore horiek izango ez **balitu**, ezingo (niri) **lidake** ilea kapetan moztu.
- Borragoma asmatu izan ez (haiek) **balute**, egindako akatsak ezingo (zuk) **zenituzke** zuzendu.
- Auzokoak ontzi-garbigailua erosi izan **balu**, orain ez **litzateke** kexatuko plater guztiak eskuz eta banan-banan garbitu behar dituelako.

- **Lan-koadernokoa. 41. orrialdea**

- Kutsatzen ez duten kotxeak asmatu izan **balituzte**, hobeto biziko **ginateke** orain.
- Etxerako lanak egiteko makina bat asmatuko **balute** oraintxe bertan erosiko **nuke**.
- Teknofobo batek hau esango **luke**: “Hobe hainbat makina asmatuko izan ez **balira**”.
- Aitari mugikorra eskatuko **banio** ez **lidake** erosiko.
- Ordenadorea makina sinplea izango **balitz**, nolakoak izango ote **lirateke** makina konplexuak?
- Gizakion bizimodua erosoagoa egiten duen zerbait asmatu izan **banu** orain asmatzaile ospetsua izango **nintzateke**.

## 8. Hitz-errota

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 12. or.; Irakurgaiak, 86-87. or.*

Aurreko bi jardueretan egindako lana hemen gauzatuko da, iritzi errotan.

Talde handian hitz-errota egiteko eman beharreko urratsak irakurri eta argituko ditugu. Ondoren, ikasleek, bospasei laguneko taldeak osatuko dituzte eta hitz-errota prestatu, horretarako, orain arte egindako lan guztiak (liburukoak nahiz lan-koadernokoak) kontuan izango dituzte eta baita irakurgaietan irakurriko dituzten testuak ere.

Ez ahaztu, hitz-errota honen helburua, ahalik eta ikuspuntu eta alderdi gehienak kontuan izanda, gaia aztertzea eta ondorioak ateratzea dela, eta ez inor konbentzitzea edo iritzi aldutzen saiatzea.

Bestetik, bukatzean, hitz egindakoaren ideia nagusiak laburbiltzeko orduan, saia zaitezte globoetan eredu gisa dituzuen motatako egiturak erabiltzen.

## 9. Ipuina irakurri aurretik: “Haztearen abantailak”

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 13. or.; Irakurgaiak, 88-93. or.; 12. lan-koaderno, 42-44. or.*

Talde handian, elkarrizketa sortuko dugu, haztearen alde onei eta txarrei erreparatu eta horien inguruan hitz eginez, gure iritzia adierazteko:

- *Zer alde on ikusten dizkiozu haur izateari utzi, eta nerabezaroan sartu eta gero eta helduagoa izateari? Eta zer alde txar?*

Elkarrizketa ostean, “Haztearen abantailak” ipuineko testuaren ezaugarriak eta edukiari buruzko hipotesiak egiteari ekingo diogu, talde handian, liburuak agindu bezala.

Ondoren, ikasleek bakarka, ipuina irakurri eta lan-koadernoko jarduera (ulermen galdetegia; interpretazioak) osatzeari ekingo diote, bukatzean talde handian egindakoa berrikusteko eta alderatzeko.

Ipuinak informazio asko eskaintzen du, era esplizituan, eta baita ironikoki iradoki eta hainbat ideia inplizituki adieraziz ere. Beraz, ikasleek, ipuina irakurri aurretik, komeniko litzateke, irakasleak ozenki irakurtzea bakarrizketa, irakurketa egokiaren eredu eman, ikasleek bakarkako irakurketa egiten dutenean, hura ulertzea eta interpretatzea errazagoa egin dakien.

Sekuentziarekin bukatzeko, taldetan bilduta, atalez atal eta txandaka, testuaren irakurketa ozena egingo dute, egindako interpretazioak eta sortzen diren zalantzak taldekideekin komentatuz.

### **Lan-koadernoan. 42. or.**

- 1.c. J. M. Olaizola *Txilikuk*.
- 2.b. Ondorengo hitzak errezitatzeko edo deklamatzeko direla; hau da: jendaurrean ozenki eta era adierazkorrean, antzeztuz, adierazteko.
3. Hitzak adieraztean hunkituta, triste edo minduta agertu behar dugula.
4. b. Ondorengo hitzekin esan nahi dutenaren kontrakoa adierazi nahi dela.
- 5.b. Ironia latza eta mingarria, norbait iraindu edota umiltzeko erabilia.
- 6.c. Haztearen ondorioen aurrean kexati ageri da, baina ez du umore ona guztiz galdu.
- 7.c. Oso egoskorra, beti bereari eusten diona, ezertan amore eman gabe.
- 8.a. Alferrikako eztabaida eta luzamenduetan galdu gabe, sortzen zaizkion arazoei aurre egiten dakiena.
- 9.a. Atseginak eta gustagarriak ez diren gauzak eta gertaerak, eta, horrexegatik, interes berezia sortzen dutenak.
- 10.b. Lantegiaren jabeak, lantegia ixteko erabakia hartu dutenak.

### **10. Ipuina irakurri ondoren: “Haztearen abantailak”**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 14. or.*

Ikasle bakoitzak bere koadernoan, arrazoiren batengatik berezia edo nabarmentzeko modukoa iruditzen zaion ipuineko esaldia koadernoan kopiatu eta aukeraketaren arrazoa ere bertan idatziko du, liburuko eredia imitatuz. Gero, taldean sortutako elkarrizketan aukeraketaren zergatia ahoz adierazten saiatuko da.

Elkarrizketa polita eta interesgarria izan daiteke. Seguru asko ikasle bakoitzak arreta gauza ezberdin bati jarriko dio eta horrek irakasleari pistak eman diezazkioke euren kezka edo interesen inguruan.

### **11. Tutoretza: lagunartean**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 14-15. or.; Irakurgaiak, 94-95. or.*

Bi orrialde hauetan, pertsonen arteko garapenarekin zerikusia duten hainbat gai dituzue. Elkarrizketa horiek ikasleekin izatea oso garrantzitsu jotzen dugu, bizipenez gain hainbat sentimendu partekatzea biziki laguntzen baitu bizitzan aurrera egiteko. Beraz, irakasle, erregula ezazu elkarrizketei dagokien denbora eta unerik egokienean bidera itzazu. Tutoretza-orduak izan daitezke aproposenak.

Gai horiek guztiak sentsibilitate handiz landu beharrekoak dira. Jakina da gure ikasleek hainbat eratako errealitateak bizi dituztela, batzuen bizimodua beste batzuen bano askoz ere latzagoa eta gogorragoa izango da eta sarritan egoera edo bizipen horien inguruan hitz egitea zaila gerta dakieke. Beraz, norbaitek gai jakin baten inguruan jendaurrean hitz egiteko gogorik ez badu, ez ezazue derrigortu, horren ordez bila itzazue bion artean aukerak, adibidez, irakaslearekin hitz egitea edo bere pentsamenduak koadernoan idaztea.

Hauek dira jarduera honetan hizpide izango dituzuen gaiak:

## **1.- ELKARBIZITZA, ELKARREKIN BIZITZEN IKASI:**

**Bikoteen (gurasoen) arteko harremanak: Liskarrak, maitasuna eta banaketa edo dibortzioa.** Gurasoen eztabaidak nola eragiten dieten gure ikasleei.

**Seme-alaba eta gurasoen arteko maitasuna.**

\*Bi ideia hauek azpimarratu nahi genituzke:

*-Gurasoen arteko harremanak eta guraso eta seme-alaben arteko harremanak bi kontu direla.*

*-Gurasoen arteko liskarrak konpontzea ez dagokiela seme-alabei.*

Bestetik, guraso banatuen seme-alaben esaldi honek, "*Garrantzitsuena ez da elkarrekin bizitzea, baizik eta gutariko bakoitza zorientsu izatea eta horretarako etxe ezberdinetan bizitzea eta beste hainbat aldaketa izatea beharrezkoa bada... ba ondo!*", bide ematen du berreraiki eta egitura berria hartutako familien inguruan hitz egiteko. Zenbaitetan, familia berriak eratu daitezke dibortzio baten ondorioz, familiak kopuruz handitu daitezke, gurasoek bikote berriak izan ditzakete, bikote berri horiek aurreko bikoteekin izandako seme-alabak... bien artean ere seme-alaba gehiago izan... guraso ezberdineko neba-arrebak izan ditzake gure ikasleren batek...

Gai horiek guztiak bideragarri ikusiz gero, hitz egin ezazue horien inguruan ere.

Dibortzioaren gaiari dagokionez, Interneten, informazio ugari dago, irakaslearen lana erraztu dezakeena, edota agian gurasoei ere luzatzea interesgarria izan daitekeena.

**Familia mota.** Guraso bakarrekoak, bi gurasokoak (homosexualak nahiz heterosexualak), haur adoptatuak dituztenak, harrera-familiak, aitona-amonekin bizi direnak... Gure ikasleek, familiaren gaia, hainbat mailatan, hainbat unitatetan, hainbat ikuspegitik landu dute gaia; hala ere, jakina da adinaren arabera gaia era askotara bizi daitekeela. Beraz, irakurgaietako testua lagun duzuela, parteka itzazue zuen bizipenak.

Hausnarketa eta elkarrizketa egin ostean ideia hau indartu nahiko genuke: *askotariko familiak daude eta garrantzitsuena elkarrenganako maitasuna da, ez horrenbeste zein den familia horren osaketa edo egitura.*

## **2.- NORBERA IZATEN IKASI**

**Pubertaroan gertatzen diren aldaketa fisikoak eta psikologikoak.** Gogora ekarri aldaketok, ikasleengan gertatzen direnerako egoerari aurre egiteko prest egon daitezen. Txanela 4, 6. unitateko 27. orrialdean aipatzen dira aldaketok.

**Orientazio sexuala eta desira sexuala.** Gai hau ere, Txanela 4, 6. unitatean lantzen da, 25. orrialdean, ekar ezazue gogora. Bide batez, ekar ezazue gogora zer den: homosexualitatea, heterosexualitatea eta baita bisexualitatea ere.

Hurrengo ideia hau ere azpimarratzea nahiko genuke:

*-Garrantzitsuena norbere sexualitate-afektibitate harremanak gustura bizitzea da, beste pertsonen harremanak ere errespetatuz.*

**Neska-mutilen arteko harremanak.**

## 12. Liburu artean

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 16. or.*

Istorio eta antzerki-gidoi bila hasteko unea da, proiektuaren lehen fasea martxan jarri nahi badugu. Horretarako, liburuan proposatutako jarduera osatuko dugu talde handian, bide batez, literatura-lanak eta horiek sailkatzen diren genero nagusiak zein diren argituz.

Bestetik, liburutegia arakatzeko esaten dugunean, ikastolakoa nahiz herriko liburutegira egin dezakezue osteratxoa. Horrez gain, animatzen bazarete, literatura-lanen generoak ikusi ostean, gelan dituzuen liburuak (gelako liburutegikoak nahiz txoko zurian bildu dituzuenak), generoen arabera sailka ditzakezue.

Konturatuko zineten bezala ez dira asko euskaraz idatzitako antzerki-gidoi bilduma eskaintzen duten liburuak. Erein argialetxeak, badu bat, *Antzoki txikia* bilduma eta bestetik, Jaurlaritzako hezkuntza saileko euskara zerbitzuak aldiro argitaratzen duen Eskola Antzerki deialdira aurkezten diren antzerki gidoien bilduma ere baduzue. Bi bilduma horiez gain, aurkituko dituzue agian, liburuaren batean antzezpen solte bat edo beste, Elkar argialetxeko *Eskola antzerkirako gidan*, irakaslearentzako baliagarriak izan daitezkeen hainbat ohar adierazteaz gain, antzezpen horien bibliografia ere eskaintzen da.

Antzerki gidoiak eskuratzeko Internet bidezko bilaketari dagokionez, berriz, hitz hauek sar daitezke bilaketa lanetan: antzerkia- teatro- gidoi- testu... Horietako helbideetako bat [www.teatro-testuak.com](http://www.teatro-testuak.com) webgunea da.

Horrez gain, gaur egungo antzerkiari buruzko informazioa, helbide hauetan aurkituko duzue: [www.artezblai.com](http://www.artezblai.com) eta [www.teatroa.com](http://www.teatroa.com).

Bestalde, *Antzertiren 75. urteurrena* ospatuz, Idoia Gereñuk, lehen aroko obrak bildu eta argitaratu zituen (2007ko abendua) liburu mardul batean: *Antzerti. Euskal antzertiaren ilerokoa 75 urte ondoren*. Gipuzkoako Foru Aldundia-Tolosako Udala. 1932 eta 1936 urte bitartean kaleraturiko *Antzerti* aldizkariaren faksimil argitalpena da.

## 13. Antzerki-gidoia aztertzen

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 17. or.; Irakurgaiak, 96-99. or.*

Liburuan proposatu bezala, ikasleek irakurgaietako antzerki-gidoi testua bakarka irakurriko dute. Gero, taldetxoetan antolatuta, liburuiko galderek bideratuta, antzerki-gidoien ezaugarriak eta elementu nagusien zerrenda osatuko dituzte. Bukatzean, talde handian berrikusi.

#### **14. Proiektuaren 1. fasea: Antzerki-gidoia eskuratzen**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 17. or.; Irakurgaiak, 100-103. or.; 12. lan-koadernoak, 45-51. or.; CD-ROMa*

Talde handian bonbillan adierazten duena irakurriko dugu, proiektuaren lehen fase honetan, gidoia eskuratzearen fasean, eginbeharrekoaz jabetzeko. Proiektuaren orrian adierazi bezala, gidoia eskuratzeko hiru bide dituzue:

- Aurkitutako gidoi bat antzeztea.
- Gidoia asmatzea.
- Ipuin bat aukeratzea eta hura moldatzea, antzerki-gidoi bihurtuz.

Zuen esku baldin badago ere aukeraketa, hiruretatik hirugarren aukera hobesten dugu. Lehenengo bien arteko bat aukeratuz gero, ez utzi lan-koadernoko jarduerak egin gabe, hizkuntzako hainbat eduki lantzen baitugu narrazioa antzerki-gidoi bihurtzeko aitzakiarekin.

Hirugarren aukera aukeratuz gero, lan-koadernoak lan hori bideratzen lagunduko dizue neurri handi batean, gidoia osorik idazteko lana erraztuz. Lan-koadernoko jarduerak ikasleak bakarka osatuko badituzte ere, talde handian berrikusi eta zuzenduko ditugu jarduerak. Gainontzeko lana, hau da, falta den gidoi zatia idaztearena, nahi bezala kudeatu dezakezue; aukeretako bat izan daiteke, taldetxo bakoitzak pasarte edo zati jakin bat aukeratzea eta hura antzerki-gidoi bihurtzea. Zati guztiak bilduz eta berrikusiz gidoi osoa esku artean izango zenukete.

#### **15. Makina sinpleak: laburpen idatzia**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 18. or.*

Talde handian, makina sinpleen inguruko informazioa irakurri eta argituko dugu. Jarduera honetan, testuko informazio garrantzitsua laburpen gisa euren koadernoan jasotzea eskatzen zaie ikasleei. Lan hori errazteko, hiru galdera luzatzen zaizkie: *Zer dira makina sinpleak? Zein dira? Zertarako balio diote gizakiari?* Galdera horiek eta erantzunak testuan bilatu eta euren koadernoan jaso beharko dituzte. Ondoren, informazioa berriatzi beharko dute, antolatuz eta egoki lotuz (lokailu eta testu-antolatzaileak erabiliz), laburpen testutxoak osatzeko.

Irakasle, jaso itzazu ikasleen koadernoak eta horietan inolako oharrik jarri gabe berrikusi itzazu egindako laburpenak eta jaso orri batean laburpen horietan egon daitezkeen akatsak (gramatikalak, ortografiazkoak, egiturari edo loturei dagozkienak...) eta ikasle bakoitzari bereak zein diren esan gabe, idatz itzazu arbelean esaldiok eta denon artean saia zaitezte akats horiek detektatzen eta zuzentzen. Bukatzean, ikasle bakoitzak bere koadernoan idatzitakoa berrikusi eta zuzenduko du, arbelean egindako ariketan ikusitakoaren arabera.

Ondoren datozen jardueretako informazioa, laburpena osatzeko ere baliatu dezakezue. Lan hori, laburpena osatzeara, egin ezazue talde handian.

## 16. Palanka eta Txirrika: testuak eta esperientzia

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 19-20. or.*

Talde handian irakurri eta argituko dugu jarduera. Material bilketa eta esperientzia burutzea talde txikietan egin ezazue. Esperientziak bukatu ostean, sor ezazue elkarrizketa saiakuntzei buruz, eta baita ateratako ondorioei buruz hitz egiteko ere.

Gogoratu, zenbat eta distantzia handiagoa euste-puntutik indarra egiten dugun lekura, orduan eta lan handiagoa egingo dugula. Euste-puntutik zenbait eta gerturago indar txikiagoa egingo dugu. Egin ezazue, baita ere, froga ate bat ireki eta ixten: bisagrak dira euste-puntua. Manila, euste-puntutik urruti egoten da indar gutxirekin lan asko egiteko. Saiatu atea ixten eta irekitzen bisagretatik gertu indarra eginez. Saiatu ondoren, bisagretatik ahalik eta urrutien indarra egiten.

Azken ariketa gisa, hausnar ezazue galdera honen inguruan: *Palanka eta Txirrikari buruzko zer informazio iruditzen zaizue garrantzitsua laburpenari eransteke?*

## 17. Beste makina sinpleak: gurpila, tornua, ziria

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 20-21. or.*

Talde handian, beste hainbat makina sinpleen gaineko informazioa irakurri eta argitzen saiatuko gara, beharrezko diren azalpenei eta iruzkinei tartea eginez. Ondoren, irakurritakoaren informazioaz baliatuz, aginduan adierazi bezala, hor behean duzuen bezalako taula osatuko dute ikasleek koadernoan.

IZENA	ZERTARAKO ERABILTZEN DA
Palanka	- Pintura pote bat irekitzeko.
Txirrika	
Gurpila	

## 18. Buztingintzako tornua eraikitzen

*Lan egiteko era: Talde txikian/Bakarka/Binaka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 22. or.*

Prozedura liburuan zehaztuta daukazue. Taldekatzea berriz, egin nahi duzuen tornu kopuruaren arabera izango da. Prozesua asko aurrera dezakezue aroztegi batean xaflak biribilean mozteko eta takoak prestatzeko eskatzen baduzue. Tresna oso sinplea izanik, oso baliagarria da buztinarekin ibiltzeko eta baita gauzak margotu eta apaintzeko ere; ez zaizue gaizki etorririko beraz, plastika gelan hainbat edukitzea. Jakina, saldu ere egiten dituzte, baina garestiago izateaz gain, egiteko prozesua galtzen duzue bidean.



## 19. Ingelesa: IMITATING MACHINES WITH OUR BODIES

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 23. or.*

ELKARTASUN JOLASEAN aritzea proposatzen dugu oraingo honetan. Jarduera honen helburua taldean elkarreragin kooperatiboa bultzatzea izango da. Honetarako sei edo zortzi laguneko taldeetan gorputzekin makina bat imitatu beharko dute ikasleek; nolabait, denek makina horren zati izan beharko dute.

- Ask the class what they have been looking at in class. (Inventions, Technology)
- Tell them that in class today you are going to play a cooperative game working on the theme of technology.
- Ask them: *What machines have you used today?* Elicit a few examples (e.g *mobile, microwave, toothbrush, bus*) and then ask them to get into small groups and make a list.
- Collect their ideas on the board.
- Ask them: *‘Have you ever been in a car wash? What do the different parts of the machine do?’* Help them to formulate their ideas:
  - *When the token is put in the machine, the machine starts*
  - *The car moves forward*
  - *The machine soaps the car*
  - *The machine rinses the car with water*
  - *The machine blows air to dry the car*
  - *The car moves out*
  - *The machine stops*
- Ask the pupils to think how they would represent a car wash and a car with their bodies, in a group. Collect their ideas.
- Ask them to look at their books on page 23. Compare the ideas.
- Tell them they are going to imagine and represent some machines working in groups. Before they start, discuss the rules for this kind of cooperative work.  
*Remember:*
  - *Speak in English*
  - *Listen to everyone’s ideas and opinions*
  - *Everyone must take part*
- Get them into bigish groups; 6 - 8 people. And tell them *“In groups, choose a machine to represent with your bodies.”*
- Go around helping and feeding in language. If they really can’t think of a machine you might suggest one of the following: *television, washing machine, hydro massage shower, mobile etc*
- Ask the groups to come forward and represent their machines. Get the others to say what is happening. *Guess what machines your classmates are representing.*

## 20. INDUSTRIA IRAULTZA

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 24-25. or.*

Atal berria hastera goazenez, ikasnorabidera joan etorria egingo dugu, aurreko atala ixteko (egindakoari begiratu eman), eta berrian murgiltzeko (egingo dugunari erreparatu).

Atal honetan, hainbat dokumentutako informazioa interpretatuz eta erlazionatuz, ikasleek, Industria Iraultzak eragindako aldaketa nagusiak ulertzea nahiko genuke.

Bi orrialde hauetako lehenengo jarduera, ardatza behatu eta aurrezazagutzak aktibatzea, talde handian osatuko duzue. Neolitoari buruzko informazio garrantzitsua jasotzeko dagokionez, ikasleek, bakarka egin dezakete eta taldean berrikusi bildutako informazioa. Neolitoari buruzko informazioa indartzeko, lehenengo mailako bideoa, *Birraitonaren makina I*, lehen gizakiaren gaiari dagokion atala ikustea proposatzen dizuegu.

Bigarren jarduerari dagokionez, talde handian osatuko dugu eta irakasleak gidatuko du jarduera. Jarduera horrek, atzetik datorren infogramaren interpretazio-lana errazago egiten lagunduko dizue.

## 21. Abestia: Iturengo arotza

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Abestien CDa, 24.pista.*

Talde handian, *Iturengo Arotza* kanta herrikoia entzungo dugu eta haren musikaz gozatu. Ondoren, letrari erreparatuko diogu eta elkarrizketa sortu:

*-Zein da abestiaren gaia?*

*-Zer da kontatzen duena abesti honek? Adierazi zure hitzekin.*

*-Zer erlazio du lantzen ari garen gaiarekin?*

**joare:** iz. Abereek lepoan daramaten kanpai modukoa da.

### ITURENGO AROTZA

Herrikoia.

Iturengo arotza  
Erramun Joakin,  
haserre omen zaude  
zeren dugun jakin;  
santurik ez liteke  
fidatu zurekin,  
San Kristobal urtuta  
joareak egin.

Arotzak erran dio  
bere andreari:  
-"Urtu behar dinagu,  
ekarran santu hori"  
-"Gizona, nora zoaz?  
Bekatu da hori!"  
-"Ez zionagu erranen  
sekulan inori".

Iturengo garaile  
Ramuntxo Joakin,  
haserre omen zaude  
zeren dugun jakin.  
Konfesa zaitez ongi  
erretorarekin,  
ez dute zer fidatu  
santuek zurekin.

Kobrezko santurikan  
inon bazarete,  
egoten al zarete  
hemendik aparte,  
baldin arotz horiek  
jakiten badute  
joareak egiteko  
urtuko zaituzte.

## **22. Industria Iraultzari buruzko infograma eta lanari buruzko gogoeta.**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 26-28. or.*

Talde handian, infograma bat zer den gogora ekarriko dugu. Ondoren, ikasleek, bakarka jarduerak proposatutakoa egingo dute; alegia: atal bakoitzeko gai zehatza identifikatu eta atalen arteko erlazioa aurkitu. Bukatzean, talde handian bateratze-lana egingo dugu. Lan hori bideratzen lagunduko dizue, 28. orrialdeko lehenengo jarduerak.

Estrategiak partekatzea lan oso garrantzitsua da, ikasleek, estrategiak ezagutu ditzaten eta lan bakoitzean eraginkorra edo gustukoena erabiltzen ikas dezaten, lanaren helburua egoki betetzeko.

## **23. Datu-taulak aztertzen eta grafikoak osatzen**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 28. or.*

Informazio-iturrietatik abiatuta, interpretatze-lanetan trebatzen jarraitzeko, oraingoan, taula batetik abiatuta, ikasleek, dagokion grafikoa (barra-diagrama) osatuko dute, eta gogoeta egin ostean, ondorioak atera. Lana bakarka burutuko dute eta taldean berrikusiko dugu.

## 24. Bi infograma alderatzen eta ondorioak ateratzen

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 29. or.*

Ezertan hasi aurretik, ikasleei, zer da infograma bat? galdera luzatuko diegu, eta bide batez, gogora ekarri iaz ikusitako infogramak (5.6 unitatean).

Tarte bat emango diegu ikasleei, orrialde honetako infograma eta liburuko 26. eta 27. orrialdeetan dagoena begiratu dezaten. Ondoren, talde handian eta ahoz, infogramen azterketa eta alderaketa bideratuko dugu, liburuan proposatutako galderei erantzunez. Jarduera honen bidez, informazio-izaerari eta hura adierazteko moduari erreparatuko diogu bereziki.

## 25. Industria Iraultzaren sare kontzeptuala interpretatzen

*Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 30. or.*

Aurreko unitatean (6.3), sare kontzeptualak zer diren eta nola interpretatzen diren ikusi genuen. Orrialde honetan, Industria Iraultzari buruzko infogramak adierazitako informazioa sare kontzeptual gisa laburtuta agertzen zaigu.

Sare kontzeptual horrek adierazten duena interpretatu behar dute ikasleek, bost laguneko taldetan antolatuta.

## 26. Artelanak

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 31-33. or.; Irakurgaiak, 104-105. or.*

Beste arloetan bezalatsu, irudigintzan ere tresnak asmatzeko eta egiteko beharra sentitu zuen gizakiak eta bilakaera horren azalpen labur bat daukazu orrialde hauetan.

**Grabatze teknikak.** Ahal duzuela, ekarri gelara grabatze-teknikaz egindako irudiak. Hitz egin ezazue teknika horiez (litografia –harri gainean egindako irudien grabaketa–; xilografia –zura gainean eginikoa–; akuaforteia –kobrezko xafletan eginikoak...). Galdetu ikasleei ea eurek bat edo beste ezagutzen ote duten (patatarekin eta egindako estanzazioak adibidez...). Goya, Rembrant eta Durero maisuen eta gaur egungoen (euskaldunak zein unibertsal) grabatuak eskuratu.

**Kamera iluna.** Hirugarren mailan (*Txanela 3*, 3. unitatea, 29. or.), begiaren funtzionamendua azaltzeko asmoz, **kamera iluna** aurkeztu genien ikasleei. Posible da orduan egin izatea, baina ez legoke soberan errepikatzea, lan erraza da eta emaitza ikustekoa baita. Eskura ezazue 3. mailako liburua eta erlazioa ezazue berriz ere kamera ilunaren eta begiaren funtzionamendua. Ondoren, ikasleek egin dezatela banaka nahiz talde txikitan kamera ilun bat. Beha diezaiotela funtzionamenduari.

**Argazkiak koloreztatzen.** Artista garaikideei egingo diegu so oraingoan. Argazkiak koloreztatzearena aspaldiko kontua dela adierazi ikasleei, hasiera batean ez baitzegoen kolorezko argazkirik. Guztiak zuri-beltzezkoak zirenez, argazkilari batzuk tintaz margotzen zituzten. Gaur egun, koloretako argazkiak ia sekreturik ez duen garaian, artista garaikideek sormen-adierazpen moduan erabili izan dute teknika hori, eta eskuz margotu izan dituzte beraiek egindako argazkiak.


Ikasleek, artisten antzera, beren argazkiak fotokopiagailuan (zuri-beltzean) handitu eta kopiak egin ondoren hainbat kolorez margotuko dituzte: euren buruaren argazkia, paisaia bat, objektuak... Argazki bera, hainbat kolore konbinatuz, eraldatzen saiatuko dira. Horretarako, argizariak edo ezkoak difuminatuz margotu daitezke, edo klerak erabiliz, edo tenperak... Aukeran utzi, eta ondoren, erabilitako teknikaren arabera lanak balioetsi denon artean.

Nahi izanez gero, jarduera hau aurreagorako utz dezakezue antzezlanaren iragartzeko kartelak egiteko orduan aplikatu baitaiteke teknika hori.

**Zinematografoa.** Badakizue, argazkigintza asmatu eta handik urte gutxira, zinematografoa asmatu zela, argazkigintzan oinarrituta. Zinematografoan, argazkiak bata bestearen jarraian pasa eta mugimenduaren sentazioa lortu zen.

Irakurgaietan, Lumière anaien etorkizunik ez omen zuen asmakizunaren (zinematografoa) berri jasoko duzue. Irakur ezazue.

Zinematografoaren aurretik hala ere, **marrazki bizidunak** asmatu ziren. Hainbat fotograma ahalik eta abiadura handienera pasatuz mugimenduaren sentazioa lortu zuten:



Zirkulu bat boteka jarri nahi badugu, goiko 6 fotograma horiek (10 bat aldiz kopiatu eta moztu) abiadura bizian mugituz (ordenan tako batean jarri eta hatzekin bizi-bizi orriz orri pasa) lor dezakegu. Abiadura egokia 10 fotograma segundoko izan daiteke. Gauza bera egin dezakezue irakurgaietako E. Muybridge-ren emakumea eta aulkiaren sekuentziarekin.

Hitz egin ezazue taldean gaur egungo irudiaren erabileraz:

- Zertarako erabiltzen da?
- Zer baliabide teknologiko erabiltzen dira?
- Zertan erraztu da lana?
- Teknika garrantzizkoa izanik, ideiak zer leku du gaur egun irudien sorkuntzan?

**Charlie Chaplin, *Garai modernoak*.** Irudiaren bilakaeraren haritik tiraka, zinema aitzakia, gaiarekin lotura estua duen ***Garai modernoak*** maisulana ikustea proposatzen dizuegu. Filmoteketan eta Interneten aurki dezakezue filma.

Komediaren tonuan egindako film luzea da *Garai Modernoak*, eta gizartearen mekanizazioa du gai. 1936an ikusi zuen argia. Zuzendaria eta pertsonaia nagusia Charlie Chaplin da eta Charlotten papera egiten du. Zorte txarra duen bihotz oneko langilea da Charlot oraingoan, eta ezinezkoa zaio katean lan egitea. Ez da film mutua, baina ez du elkarrizketarik, abestien eta makinaren soinuek osatzen dute entzunezkoaren zatirik handiena. Halako batean, Charlot kartzelara eramango dute eta Paulette Goddardek antzezten duen etxerik gabeko neskatxa ezagutuko du han.

Hainbat gai dituzue film luze horretan hizketagai:

- Katean lan egitea, mekanizazioa*
- Kapitalista eta langileak*
- Kontsumoa*
- Lan-gatazkak*
- Pobrezia*
- Maitasuna*

Baina batez ere, gozatu filmaz.

Bestalde, Chaplinen adierazkortasuna aitzakia, proiektuaren bigarren fasean murgilduko gara. Nahi baduzue, girotzeko, lehenik jolastu Charlotten ibilera imitatzeraz, ahoa, sudurra eta begien mugimendua berak egiten dituen moduan egitera...

Zarauzko **Photomuseum** argazki eta zinema museoak baliabide eta erakusketa iraunkorrak eta aldizkako erakusketak biltzen ditu, beste hainbat ekintzekin batera. Bisitarik antolatu nahi izanez gero, jo ezazue <http://www.photomuseum.es/> webgunera.

*Hik hasi aldizkariak Ilargiaren sekretua* film luzea egin zuen haurrentzat eta film horretan oinarrituta, *Begiradaren heziketa* DVDa kaleratu zuen. Film bat egiteko jarraitu beharreko urratsak eta irudien irakurketaz jakin beharreko oinarritzko kontzeptu batzuen azalpena da, ikasleei zuzenduta.

## 27. Proiektuaren bigarren fasea: Adierazpenetan trebatzen (keinuak eta gorputz adierazpenena)

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 33. or.; Irakurgaiak, 106-109. or.*

Bonbillan adierazi bezala, proiektuaren bigarren faseari emango diogu hasiera. Bigarren fase honetako lehen atala lantzeari ekingo diogu; hau da, keinu eta gorputz adierazpenean trebatuko gara. Horretarako, talde handian, dramatizazio-jolasak egitea proposatzen dizuegu. Jolas horiek hainbat egunetako saioetan egin ditzakezue, denbora tartek erregulatuz.

- **Emozioak askatzen.** Gelan zehar ibiliko gara (espazio osoa betez), elkar ukitu gabe, baina elkarri begietara begiratuz. Erritmoa aldatuz joango gara (irakasleak adierazi ahala): bizkortuz, motelduz, nahiz izoztuz (argazkia). Izoztu esatean zera adierazi nahi dugu: irakasleak, “argazkia” hitza esango du, eta ikasleak une horretan izoztuta bezala geratuko dira, argazki batek hartuko lukeen irudia adieraziko balute bezala. Hauek dira *adierazi beharko dituzten **sentimenduak eta egoerak***:

**Oharra.** Agian, ikasleek ez dituzte emozio horiek guztiak ezagutuko, izenez behintzat; beraz, taldean, eta hobe ariketa egin aurretik, argitu zein emozio den horietako bakoitza eta zein egoeratan senti dezakegun.

### • Sentimenduak

pozik	aspertuta	urguiluz blai	haserre	errudun sentitzen zara	txundituta
triste	zorabiatuta	damututa	nekatua	ezonegona duzu	lasai
larri	gogogabe	beldurrez	harrিতuta	inbidia ondokoari	frustrazioa
ulerkor	harro	amorratuta	asaldatuta	lotsatua	barregarri interesatuta

Jolasa bukatu ostean, esperientziari buruz hitz egiteko elkarrizketa jarriko dugu martxan:

*- Zein emozio dramatizatzen sentitu naiz ondoen? Zein kostatu zait dramatizatzea? Zergatik izango ote da? Ikas dezagun emozio guztiak adierazten!*

### • Egoerak

- Maiteminduta nago... Lagun guztiak maite ditut... Maitasunez beteta sentitzen naiz...
- Adiskide ugari ditut... nire adiskidetasuna adierazten diet...
- Urduri nago... gorputza uzkurtuta dut... izotz bloke bat bezala sentitzen dut...
- Ez dut gelako inor ezagutzen... horko hori ezaguna egiten zait, agurtu egiten dut... hara nire lagun mina, hor dago!...
- Argazkiak (+mugimendua): txerrikia saltsan... txerrikia labean... arraina lapikoan... airea naiz... txikle zati bat... ura... itsasoko bitsa... usain gozoa dago... kiratsa... nor ote dago ate atzean... begiratzera noa...

### - Gorputza askatzen eta bere bidez adierazten

Gorputzaren *kalitateak* frogatuko ditugu. Irakasleak gidatuko du; ibiltzeko erritmoak: nola ibiliko ginateke... itsuak izango bagina... hanka bakarra bagenu... hankarik ez bagenu... kanguruak bagina... Hainbat adibide eman dakizkieke haurrei.

Behin gorputza berotu eta askatua dutenean, gorputz-kalitateekin sartuko gara: *metala* izango bagina nola ibiliko ginateke, nola agurtuko genuke, nola saltatu, nola etzan... Beste aukerak: *txiklea, ura, soka, kotoia*...

### - Non da nire beste erdia?

Irakasleak ikasle bakoitzari emozio jakin bat adieraziko dio hura dramatiza dezan, gorputzeko eta aurpegiko keinuen bidez. Gelan zehar ikasle bakoitzak berea dramatizatu bitartean, emozio bera adierazten duen kidea edo kideak bilatu behar ditu taldetxoak osatzeko. Hasi zaitezte emozio errazekin. Emozio bera adierazi duten ikasleek (talde txoak) lurtean eseriko dira eta banan-banan emozio hori, azkenaldian, noiz sentitu duten eta zerk eraginda, adieraziko diote elkarri.

Jolasa behin baino gehiagotan egin dezakezue, eta aldi bakoitzean kontsigna ezberdinak erabili, alegia, emozioa hainbat modutan adierazi: hitzik egin gabe, soinua ere erabiliz...

-Beste aukera bat: lau emozio dituzten ikasleak talde bat osatuko dute. Adibidez: tristezia, haserrea, lotsa eta poza. Ondoren, hainbat egoera adieraziko dizkiegu, eta bakoitzak bere emozioaren arabera egoera horretan nola jokatu lukeen adieraziko du.

1. egoera. Autobusean eserleku bakar bat dago libre. Geltoki horretan zu eta zure atzetik beste lagun bat sartu da. Despistatu zarenean, aurrea hartu eta bera eseri da eserlekuan.
2. egoera. Nire laguna nik egin ez dudana zerbaitengatik haserretu da nirekin.
3. Asma itzazue beste egoera batzuk.

- **Denboraren makina.** Tarte bat emango diegu ikasleei, irakurgaietan duten antzerki gidoia irakurtzeko. Ondoren, talde txoak antolatuko dituzte, antzerki-gidoiko pertsonaia bakoitzaren hitzei, eta baita oharrei edo akotazioei erreparatuz egoera bakoitza adierazteko keinu eta gorputz adierazpen egokiak proposatzeko, adosteko eta dramatizatuzko (denok dena, trebatze-lana baita). Irakasleak, talde guztietara hurbiltzeko tarte hartuko du, eta ideiak luzatu, ikasleak motibatu, edo beharrezkoa ikusten duen beste zerbait egin. Nahi izanez gero, bukatzean, talde handian bateratze-lana egin dezakezue, eta, agian, beste ideia batzuk sortu ere bai.

Dramatizazio-jolas eta ariketa horien guztien azken urratsa, landutakoa gure proiektuari egokitzea izango da. Horretarako, jarrai itzazue bonbillako bigarren ariketak proposatutako urratsei.



## 28. Plastika: Prentsako argazkiak eta kartelak

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 33. or.*

Prentsako argazkiak, edota Pilar Iparragirrek *Argia* astekarian (ikus hemerrotekan 2002-05-26 1855. zenb) idatzi zuen bezala, MILA ALBISTEK BAINO GEHIAGO ESATEN DUTEN IRUDI HORIEK, gizakion historiaren testigantza garrantzitsuak dira. Argazki mota honek, beste argazkiek bezalaxe, bilakaera handia egin du urteetan zehar.

Prentsako argazkiak erabili izan dituzte beren artelanetan hainbat artistek errealitateari buruz hausnartzeko eta baita egoera batzuk salatzeke ere, kasu honetan bezala: prentsak oso ezaguna egin zuen argazkia erabiltzen du artistak gerra eta gizarte mota bat kritikatzeko eta salatzeke.

Taldean hitz egin ezazue prentsa-argazkien garrantziaz, eta ikasleek lor ditzatela egunkari eta aldizkarietatik prentsa-argazki esanguratsuak. Beha iezaiezue taldean, eta, nahi izanez gero, kartoi mehe batean jarri horman dago(z)kion izenburuarekin.

Gure **antzezlana iragartzeko kartelean** pentsatzen hasteko ordua iritsi da. Baina zeri deitzen diogu “kartela”? Hona hiztegiak dioena:

**kartel.** iz. 1. Iragarki, propaganda edo abisu moduan, erraz ikusteko lekuetan jartzen den paperezko edo beste materialezko pieza, irudi eta inskripzioak dituena.

Ilustratzaileen esanetan berriz, kartelak **horman ipinitako “oihu grafiko” bat izan behar du, eta ikuslearen arreta bereganatu.**

Hemen duzue **kartelaren historiaren** laburpen bat. Erraz ikus daiteke kartelaren bilakaerak zerikusi zuzena izan duela asmakizunen historiarekin eta baita gizartearen gertatu diren gertaera nagusiekin ere.

Kartelak edo posterrak inprentaren asmakizunarekin batera sortu ziren XV. mendean. Hasierako kartel haiek ez zuten ilustraziorik izaten gehienetan. Udalaren eta erregeen abisuak emateko erabiltzen ziren, beste batzuetan azokak eta feriak iragartzeko, eta gutxitan liburuak iragartzeko izaten ziren. Gero, grabatu txikiekin egiten hasi ziren ilustrazioak, baina ekoizpena ez zen erraza. Posterrek gaur egungo itxura XIX. mendean hartu zuten.

**Garai modernoaren hasiera.** 1800. urtearen inguruan, kartelaren garai modernoaren hasiera eman zioten bi gertaerak: Industrializazioaren hasiera izan zen gertaera garrantzitsu bat, publizitatea jende guztiarengana iristeko beharra sortu baitzen ekoizpenak saltzeko asmoz. Bigarren gertaera, 1978. urtean inprimatzeko teknika baten asmakizuna izan zen: litografia. Litografiaren bidez kolorezko kartela erraz inprimatzen baitziren.

Kartelen ekoizpenak gora egin zuen XIX. mendean, eta hainbat produktu eta zerbitzu iragartzeko erabili izan ziren. Garai hartakoak dira, baita ere, **antzerkiak iragartzeko lehen kartelak.** Kartel haiek, gehienetan, iragartzen zituzten obren hainbat eszenen ilustrazio errealistak izaten zituzten.



1867an Jules Cheret frantsesak, antzezlan baten kartela egin zuen. Hura izan zen kartelgintza modernoaren aita; kartelaren itxura aldatu zuen ilustrazioari garrantzi handia emanez, ordura arte ilustrazioa testuaren mende egoten baitzen. Testua oso laburra zen, antzokiaren eta antzezlanaren izenak bakarrik jartzen zituen.

Chéreten metodoak berehala zabaldu ziren Europan eta Ameriketara, eta ez bakarrik antzerkia iragartzeko karteletara; izan ere, era guztietako produktuak iragartzeko egiten ziren karteletan ere sumatu zen haren eragina. Kartel mota hori begientzat erakargarria izateaz gain, alfabetatu gabeko jendearentzat ere ulergarria zen.

Kartelgintzaren artean bizitasuna piztu zen eta horrek artista ezagun asko erakarri zituen genero hori lantzerako. *Art Nouveau* joerako hainbat artista eta hainbat pintore frantsesek (Henri de Toulouse-Lautrec eta Pierre Bonnard) berrikuntzak ekarri zituzten. 1980ko hamarkada oso garai emankorra izan zen.

Jules Chere ten kartel bat

### 1980ko hamarkada



XIX. mendeko kartelgile garrantzitsuenetakoa izan zen Toulouse-Lautrec. Edukian zein estiloan aldaketa nabarmenak egin zituen. Japoniako grabatuetan inspiratuz, kolore lauez osatutako eremu handiak margotu zituen. Garai bateko emakumearen irudi idealizatuak emakume errealekin irudiekin ordeztu zituen, nahiz eta leunki estilizatu zituen. Horrela, emakume bat taberna batean edaten, gizon bat eta emakume bat elkar musukatzen mahai baten inguruan eserita, ikus zitekeen. Testuaren presentzia oraindik ere, are gehiago murriztu zuen.

Jane Avril-en kartel hori (1899), Toulouse-Lautrec-en azkenetariko kartel ospetsua da. Artistaren izena salbu, testu guztia desagertu egin da bertan. Kartel modernoaren, piktorkoaren, eredia da.



*Art Nouveau* edo Arte Berriaren ordezkariak pintura estiloa aldatu zuten, lerro arinak eta forma dotore luzeak zituzten irudi exotikoak txertatu zituzten.

Van de Veldek, *Tropen* (1899) izeneko kartelean, pertsonen irudiak erabat desagerrarazi zituen, eta marrazki erabat abstraktua egin, erabat bestelako estiloa abiatu zuen.



Korrante edo joera modernistaren barruan Ramon Casas eta Santiago Rusiñol (idazle eta margolaria) katalanak nabarmendu ziren.



Ramon Casas, *Anís del Mono*



Audrey Beardsley (*Art Nouveau/Arte Berria*)



Alphonse Mucha (*Art Nouveau/Arte Berria*)



Gustav Klimt



Bonnard-ek ere, berrikuntza garrantzitsua egin zuen artearen modalitate honetan 1894an: letrak eta marrazkia lotu zituen eta atzean karaktere oso txikitako idatzitako hitzak jarri zituen *La Revue Blanche* egunkariko iragarki-kartelean. Estilo berri horrek ere eragin handia izan zuen ondorengo kartelgintzan.

Pierre Bonnard, *La Revue Blanche*.

## XX. mendea

I. Mundu Gerra hasi zenean (1914) kartelek erabateko aldaketa izan zuten: propagandarako tresna moduan, besteak beste, pertsonak armadan izena ematera animatzeko erabili izan ziren. Aurrekoekin alderatuz, balio artistiko jaitsi egin zitzaizkien, baina mezu irmoko kartelak argitaratu ziren.

1920ko eta 1930eko hamarkadetan, artearen influentzia guztiak islatu ziren karteletan: kubismoa, surrealismoa, dadaismoa eta Art Déco-a beste bazuen artean. Urte haietan bi kartel mota berri zabaldu ziren: zinema-kartelak (zinema mutuaren arrakasta tarteko, eta 1929tik aurrera soinudunaren hedapenaren ondorioz) eta bidaiakartelak. Kartel erdi-abstraktoek ere garrantzia hartu zuten, Alemanian eta Errusian batez ere. John Heartfield, George Grosz eta El Lissitzky dadaistek argazkiekin egindako karteletan esperimentatu zuten; hainbat argazki zatirekin argazki-muntaiak egin zituzten.



II. Mundu Gerran, berriro azaldu ziren propagandarako mezu irmoko kartelak, Ben Shahn artistarenak, adibidez.

Gerra ondoren, aurreko joerak findu egin ziren eta Pablo Picasso, Salvador Dali, Henry Matisse, Roy Lichtenstein eta beste artista handiek kartelak egin zituzten. Ameriketako Estatu Batuetan Peter Max, Milton Glaser eta Tomi Ungerer gisako artista grafiko ospetsuek ere kartelak egin zituzten. Hego Amerikan Felix Beltran diseinatzailea buru zuen Kubako eskola da aipagarria.

Ben Shahn Gaur egun, telebista eta irrati bidezko iragarkiak direla eta, kartelaren baliagarritasuna zalantzan jartzen du zenbaitek. Hala ere, publizitate agentziek kalitate handiko eta ikusteko oso erakargarriak diren kartelak egiten dituzte, arrakasta handiz.

→ **Zuen kartelak egiteko hartu kontuan.** Estatistikak dioenez, kartel on bat ikusleak hamabi segundoko denbora-tartean ikuskatzen omen du. Beraz, kartelak bere helburua lortzeko, ezaugarri batzuk betetzea komeni da:

- Irudi deigarria eta esanguratsua. Kolore biziak.
- Testua motza, zehatza eta letrakera irakurterazekoa. Maiuskulen erabilera ohikoa da horretarako.
- Kokapenari dagokionez: jendearen bistan, jende asko ibiltzen den tokietan eta urrutira nabarmentzen dela.

→ **Azter itzazu eskura dituzun kartel guztiak:**

- Ikusi zer teknika erabiltzen duten
- Irudi mota
- Testuaren eta letrakeraren ezaugarriak
- Testua eta irudiaren arteko erlazioa

Azter ezazue taldean zuen kartelean adierazi beharrekoa zer den, ikuslea nola erakarriko duzuen, irudi bidez eta idatziz zer jarriko duzuen. Mezua oso esplizitua izango ote den (hau da, xehetasun eta argibide guztiak eskainiz), edota iradoki bakarrik egingo duzuen, jakin-mina piztu eta pista bat edo beste eskainiz...

Ilustrazio-teknikari dagokionez, argazkia, collagea, marrazkia... erabil ditzakezue, baina gogoratu kartela jende askorengana iritsiko bada, kopia dezente beharko dituzuela.

Atera itzazue, bada, kopiak zuri-beltzean (A3 neurriko kartelak egin ditzakezue) eta Ukelelen moduan nahi baduzue, kolorezta itzazue ondoren.

## 29. Txisteak

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian/Talde handian*  
*Materiala: Irakurgaiak, 109. or.*

Tarte bat emango diegu ikasleei txisteak irakur eta goza ditzaten. Bukatzean, interpretazio-lanetan trebatzen jarraitzeko, ez legoke gaizki txisteak dramatizatzea.

## 30. Hiztunak eta hizkuntzak

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*  
*Materiala: Ikaslearen liburua, 34. or.; Irakurgaiak, 110-111. or.*

Gure ikasleek, prentsa-irakurle moduan dituzten irakurtzeko ohitura eta zaletasunak ezagutzeko aukera paregabea duzue hau, eta baita bidez batez, ezagutzen ez dutena ezagutarazteko ere. Horretarako, eskura eta bil itzazue ahal bezain euskarazko argitalpen gehienak eta jar itzazue txoko zurian ikasleen eskura, tarteka, hara jotzeko aukera izan dezaten.

Bestetik, irakurgaietan *Argia* aldizkariko lehen faksimila daukazue irakurgaietan. Ikasleek bakarka irakurri ostean, taldean irakurri eta elkarrizketa sortuko dugu hainbat gairen inguruan:

- Maketa.
- Erabilitako euskara.
- Berriak esaten duena.
- Bukatzeko, gaur egungo *Argia* aldizkari batekin alderatu eta izandako aldaketa eta berrikuntzaren gainean ere hitz egin dezakezue.

Gaiaren inguruan, ekintza baten proposamen bat egin nahi dizuegu. Astebeteren buruan, egun bakoitzean talde bat arduratuz, ikastolako jolas-orduan, mahaitxo bat jartzea “Ezagutu euskarazko prentsa!” lelopean, jendea hara hurbilaraziz eta euskal prentsaren berri emanez: bakoitzak zer eskaintzen duen, non eskura daitekeen...

## 31. Abestia: San Simon eta San Juda

*Lan egiteko era: Talde handian*  
*Materiala: CDa, 23. pista.*

Euskal prentsa aitzakia, gure hizkuntza goraiatzaren duen abesti bati tokia egingo diogu, haren erabilpena indartzearen alde, motibaziorako abesti gisa. Talde handian entzun eta gozatu ostean letrari erreparatuko diogu, gaia eta kontatzen duenaz jabetzeko. Bukaeran, buruz ikasi eta kantatu egingo dugu.

## SAN SIMON ETA SAN JUDA

Hitzak: Gabriel Aresti

Musika: Xabier Lete

San Simon eta San Juda  
joan zen uda eta negua heldu da.  
Ez baletor, hobe,  
bizi gera pobre  
eremu latz honetan,  
ez gara hain onak benetan.  
Ez dugu zaldirik, ez gara zaldunak;  
ez dugu abererik, ez gara aberatsak;  
euskara guk dugu, gu gara euskaldunak;  
euskara guk dugu, gu gara euskaldunak. (Bis)

### 32. Euskal Herriko industrializazioa

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 35. or.*

Jarduera talde handian eta, Europako mapa murala aurrean dugula osatuko dugu. Informazio horretatik guztitik ikasleek jaso beharreko ideia, galdera hauen erantzuna besterik ez da: *Non hasi zen Euskal Herriko industrializazioa? Zergatik toki horretan eta ez beste nonbaiten?*

Euskal Herriko industrializazioa Ibaizabal itsasadarraren inguruan (Bizkaian) finkatu zen hango meategietatik ateratako **mea oso ona zelako** labe garaietan harrikatzarekin erretzeko eta beraz, burdina sortzeko. Bilboko burdin meategiak kaitik hurbil aurkitzen zirenez (**itsaso bidezko merkataritza bideratzeko oso kokapen ona**), Bilbo, merkataritza-portu garrantzitsua bihurtu zen.

Gaiarekin lotuta, hona hemen Bizkaiko meatzaritzari buruzko artikulu interesgarri bat:

## PLAZA

**Carmelo Uriarte: «Hau lurralde aberatsa bada, hein handi batean meategiei esker da, baina inork ez du kontatu hori»**

Bizkaiko loraldi ekonomikoa meategietan hasi zela jakinaraztea eta ondarea gordetzea dira Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoko presidentearen helburuak

**mikel carramiña**

Abanto

Bizitza osoa igaro du Bizkaiko Meatzaldean Carmelo Uriarte Olanok (Gallarta, Bizkaia, 1931). Egun ere, erretiroa hartu zuenetik hogeitaz hamar urte igaro direla, han jarraitzen du, etxe eta lanbide izan zituen meategiak egungo zaletasun bilakatuta. Lana utzi eta gutxira sentitu zuen meatzaritza lagatzea ezinezkoa zela, eta, horregatik, egun batean Euskal Herriko meatzaritzaren lehenengo museoa sortzea erabaki zuen. Lurrari burdin mea ebasten lankide izandako batzuk izan zituen bidaide egitasmo horretan eta, urteetako ahaleginaren ondoren, erakundeen laguntza eskuratu dute egoitza berria egin eta zenbait ikerketa abiatzeko. Aurten museoko zuzendaritza lagatzea erabaki du Uriartek, bizi guztirako lehendakaria bada ere. Dolores Ibarruri *Pasionaria*-ri eskainitako aretoan azaldu digu zergatik.

**Duela hilabete gutxi ireki zenuten *Pasionaria*-ri eskainitako gela hau. Zer dela eta?**

Betidanik miretsi izan dudana emakumea izan da. Arrazoi nagusia da merezi zuela, hau eta askoz gehiago. Iraultzaile handia izan zen, giza eskubideen alde egin zuen, eta zintzotasunez jokatu zuen beti. Egun, ikusten dugu edozein herritako zinegotziak azpijokoetan dabilzala dirua irabazteko, ahal dutena lapurtzen dutela politikari askok. Dolores Ibarrurik ez zuen zentimorik eraman, eta pobre hil zen; Franco hil ondoren bueltatu zenean, alokairuan bizi izan zen eta alabari ez zion ezer utzi, lan eginez egin behar izan zuen aurrera.

**Gallartan jaio eta hazi zinen. Noiz sartu zinen meategietan lehen aldiz?**

Ez nintzen oso gazte hasi, hamar urterekin ekin nion lan egiteari, baina abeltzain eta banatzaile aritu nintzen. Meatzaritzan 17 edo 18 urterekin hasi nintzen, abereak zaintzeari utzi nionean, eta hortik erretiroa hartu nuen arte.

### **Nolako giroa eta baldintzak ziren garai hartakoak meategietan?**

Zaila da azaltzen, beti izan da latza meatzaritza, eta inguru honetan are okerragoa. Behargin bakoitzak 15 tona kargatu behar zituen. Egunero. Nekagarria, latza eta mingarria zen hori meatzarientzat, baina hori eskatzen zuen lan sistemak. Elikadura, bestetik, segurtasuna bezain eskasa zen. Zauritu ugari zegoen, istripu ugari eta gaixo gehiago, lan baldintzak okerrenak ziren. Garbitasunik ez zegoen, ez arroparik, ez zapatarik, gizarte kontuetan ezer ez. 60ko hamarkadan hobetzen hasi ziren lan baldintzak, teknologia berriei esker. 58ra arte, ordea, esan daitekeen guztia ez da gehiegikeria. Zama ikaragarria zen bakoitzak 15.000 kilo ateratzea, pentsa zer den hori. Hori, zulatzen aritzen zena; beste hainbat lan gogor bazeuden, hala nola trenbideak jarri edota leherketak egitea.

### **Meatzariek gaixotasun ugari izaten dituzte lanagatik. Zer-nolakoak ziren hemen?**

Labeetan lan egin behar zutenek silikosisia hartzeko arrisku handia zuten, baina hemen bestelako gaixotasun batzuk ziren nagusi, klimaren ondorioz pairatzen genituenak, tuberkulosia eta pneumonia kasu. Gehienek bustitzeagatik hartzen zuten halakoren bat, euria egiten zuenean zakuekin babestu behar genuen, ez baitzegoen uretarako jantzi berezirik. Lana berdin egin behar genuen.

### **Emakumeek ere lan gogorrek egiten zituzten meategietan, ezta?**

Hemen emakumeek inork ezagutu dituen lanik latzenak eta gogorrenak egin izan dituzte. Gehienak tronbelak zeritzoten garbitegietan aritzen ziren, lur puskak garbitzen zituzten, burdin mea ateratzeko. Garbitzaile baten moduan lan egiten zuen tronbelak. Emakumeak eskuak eta oinak lokatzetan sartuta eman behar zuten eguna, uretan, hezetasuna pairatzen, baita negurik latzenetan ere. Gainera, bizimodu zaila zuten, emakumeek bakarrik jasan zezaketen hori. Gizonok diogu indar handiagoa dugula, baina gu ez ginen hori egiteko gai. Meatzari zaharrak emakumeak laguntzera bidaltzen zituzten tronbeletara.

### **Nolako lanaldiak eta soldatak zenituzten?**

Hamabi ordutik gorako lanaldiak ez ditugu guk ezagutu, horiek nire gurasoek pairatu zituzten. 50eko hamarkadan, zortzi orduko lanaldia genuen, astean sei egunez. Egia da, baina, ordu gehigarriak egiten genituela beti. Gehienetan hamar ordu inguru egiten genituen egunero. Aurretik ugazabak nahi zituenak sartu behar zituzten. Pezeta gehigarriren bat irabazteko, lan bikoitza edo ordu gehigarriak egin behar genituen. Soldatei dagokienez, baditugu dokumentu ugari non sariak agertzen diren. 1947an lan egin zuen batek, adibidez, 11,25 pezeta irabazi zituen egunean, eta 1950ean aritu zen beste batek 14, 06.



### **Nolakoa zen Gallarta garai hartan?**

Orduko Gallarta meategiarekin batera desagertu zela esan daiteke. 70eko hamarkadan hasi ziren botatzen, herriaren azpitik sartuko ziren galeriak bestela. Herri handia zen, 7.000 biztanle inguru zituen. Denetarik zegoen hemen, eliza eta pilotalekua, Bizkaiko handienetakoa gainera. Egun ikus daitekeena besterik ez zuten utzi, orain dagoen zulo erraldoia. Meategi honi Kontxa II.a deitzen genion. Behean gelditu den zuloa, Euskal Herriko altitude txikiena duen lekua da, itsas mailatik ia 20 metro beherago baitago. Gainera, 55 km galeria dago horren azpitik, sakonenak 200 metroko jaitsiera dauka.

### **80ko eta 90eko hamarkadetan meategiak ixteak krisialdirik eragin al zuen?**

Ez zen krisirik egon, inguru industrialak ondoan genuelako, meatzaritza gain behera zetorren aspaldi, eta hemen lanik ez bazegoen, lantegiren batean egin ahal genuen. Industriaren krisialdia hasi zenean, noski, inguru honetan eragina sumatu zuten. Gainera, 1993an, Bizkaiko labe garaietara eta beste zenbait fabrikatara bidali zituzten bertoko langileak. Ez zen traumarik gertatu. Itxi zituzten meategiak errentagarriak ez zirelako, kanpotik ekartzen zuten burdin mea, hobe eta merkeagoa zen. Askotan, lanpostuak ez izorratzearen mantentzen zituzten meategiak.

### **Erretiroa hartuta, nola gertatu zen museoa sortzeko egitasmoa?**

Batez ere malenkonia eta penagatik izan zen. Beti izan naiz historiazalea, eskolara oso gutxi joan nintzen arren, betidanik gustatu zait irakurtzea. Somorrostro, Sopuerta, Galdames edo Trapagaranera joaten nintzen, mendian ibiltzera. Leku horietan, ume nintzela dozenaka gizon ikusi nituen meategietan, harriak eta sasiak besterik ez nuen aurkitu. Orduan hasi nintzen material puskek hartzen; mailu bat, torlojuak edo bestelako lanabesak topatzen nituenean eramane eta pilatzen hasi nintzen. Argazkiak ere ekartzen zizkidaten ezagunek, 1984an izan zen hori. Noski, ez nuen uste gaurko honetara helduko nintzenik. Lankideak hurbildu zitzaizkidan, Miguel Godoy kasu, eta beste hiru edo lau.

### **Eta nola lortu zenuten egoitza eta hasierako laguntzak?**

Hasiera batean ez genuen bildutakoa non gorde eta, horregatik, askotan lapurtu ziguten, halako museo bi lapurtu dizkigutela esaten dut askotan. Hondatuta zegoen eraikin hau bota behar zuten eta Udalari eskatu genion. Ez ziguten eman nahi, baina alkate bat konbentzitu genuen eta lantegi moduko bat sortu genuen. Hasiera batean nire egitasmoa zena sendotzen hasi zen, eta meatzari izandako batzuk bildu ginen. Hogei urte dira, eta, zaharrak bagara ere, lanean jarraitzen dugu. Gazterik ez da animatzen, egungo gazteria ez baita gauza hauetaz arduratzen. Eta inork ez badu lekukoa hartzen, lan egiten jarraituko dugu. Museoan dagoen guztia guk atera dugu, ezinezko lekuetatik, eta ez dugu sosik kobratu horren truke. Egun, museoak lau funtzionario dauzka, soldatapekoak. Guk, aitzindariok, lan egiten dugu kobratu gabe,

baina tira, atsegin dugulako egiten dugu. Meategietara joaten gara oraindik ere, han egon daitekeena hartu, hona ekarri eta zaharberritzeko. Adituak gara dagoeneko, bakoitza arlo batean; beraz, indarrean falta zaiguna, esperientzian dugu sobran.

### **Nola eskuratzen dituzue museoan ikus daitezkeen gauzak?**

Hemen dagoen guztia jatorrizkoa da, meategietan erabilitako materiala alegia. Guztia berreskuratu eta eraberritu egin dugu, baina aspaldiko eran, lanabes zaharrekin. Bagoneta bat gaur egun egitea, esate baterako, oso erraza izan daiteke, baina adituak badaki desberdintzen egungoa eta aspaldikoa zein den. Iltzeak ere meategietatik atera ditugu gure bagonetak konpontzeko.

### **Meategietan aritutakoak ziren zure gurasoak?**

Bai, aspalditik datorkigu lanbidea, gurasoak ez ezik, aitona-amonak ere aritu ziren inguruko meategietan. Ondo gogoratzen dut nola eramaten nion bazkaria amari garbategietara, geneukan horri janaria deitzerik badago. Ohitura handiko lanbidea izan da meatzaritzarena nire familian, eta horregatik izan dut nik betidanik horrekiko malenkonía. Hau guztia iraunarazi behar dugu. Gogoan daukat ume nintzela ikusten nituen meatzari zaharrak, gerra garaian, sei urte nituela, lanetik ateratzen ziren, lokatzez beteta, kolore gorrixka aurpegian, burdin mearen kolorearekin. Etxera bueltatzen ziren eta jatekorik ere ez zuten. Bizi-itxaropena hemen oso baxua zen, garai hartan inor ez zen gure adinera heltzen, ezta hurbiltzen ere, 40 urte inguru zituztela hiltzen ziren gehienak, 50era heltzen ziren gehienez ere. Aurretik, askoz larriagoa izan zen. 1899an izan zen Bizkaiko meategietan ekoizpenik handiena, sei milioi tonakoa. Urte horretan meatzarien bizi-itxaropena 18 urtekoa besterik ez zen, sinestezina ematen badu ere.

### **Uste al duzu Bizkaiak bere iragana ahaztu egin duela?**

Bai, ahaztu egin du, gu bezalako lau zororengatik izango ez balitz, gauza asko galduko ziren. Eskerrak badiren gu bezalakoak, industriaren ondarea gordetzea aldarrikatzen dutenak. Gaur egun, errazena urrezko zekorra jarraitzea da, futbola, adibidez. Gallartan bertan, partidu batean bi mila ikusle egon daitezke, eta hemen inor ez dago. Eskerrak gauza bitxiak gertatzen diren ikastetxeetako bisitekin, ez dakit gauza bera gertatuko den gainerako museoetan. Umeak datoz eta gero haiek dira gurasoak eta bestelako senideak ekartzen dituztenak.

### **Industria aipatzen denean, meatzaritza bigarren maila batean jartzen al dute?**

Bilboko portuko lanak egiteko dirua meategietatik atera zen. Burdin mea tona bakoitzeko zerga bat ezarri zuten, hori baitzen garraiatzen zen gauza bakarrenetarikoa. Zentimo batzuk besterik ez zen, baina garai hartan soldatak pezeta gutxikoak ziren. Inork ez du gogoratzen portua meategiei esker egin zela. Gaur egun

Euskal Herria lurralde aberatsa bada, hein handi batean herri hauetako meategiei esker da eta inork ez du kontatzen hori. Lan egitera etorri ziren milaka etorkinak inork ez ditu aipatzen; kapital handiak, besterik ez dugu gogoan; industria gizonak, Ibarra, Legizamon, Aznar eta bestelako izenak, besterik ez da gelditu.

### **Industrializazio garaiko ondarea museoetan gordetzearen aldekoa zara.**

Gutziz aldekoa, gurea museo aitzindaria izan zen, eta gaur egun asko ikusten ari dira turismoari begira bideragarriak izan daitezkeela halakoak. Zenbat eta museo gehiago ireki, orduan eta ondare gehiago berreskuratuko dugu. Orain Lutxanako zamatzeko tokiak berreskuratu nahian gabiltza, 130 urte dituztenak. Horrelako gauzak iraunderatzea nahi dugu, hemendik 150 urtera jendeak jakin dezan mende hauetako historia eta ondarearen berri. Ez dugu lan hau egiten gure zaletasuna delako, etorkizunean ikasleak etortzen jarrai dezaten baizik.

### **Egoitza berria egin eta ikerketak egiteko laguntzak eskuratu dituzue.**

Gerra ostean, adibidez, gatibuak zituzten dozenaka soldadu egon ziren lanean hemen. Horri buruz daturik ez omen dago, ezagutu badugu ere. Hori da jorratu nahi dugun gaietariko bat, eta, horretarako, ikerlariak bilatu beharko ditugu. Oraindik garaiz gabiltza egitasmo horiek bideratzeko. Ezinbestekoa da meategietako eta langile mugimenduaren memoria berreskuratzea, 1890eko grebekin hasi baitzen. Ez zegoen hura gelditzeko segurtasun indar nahikorik.

### **Museoko zuzendaritza laga berri duzu? Zergatik?**

Burokrazia lanak dira utzi izan ditudanak, inoiz ez bainaiz oso trebea izan horretan. Nik bestelako lanetan ibili nahiago dut, eta orain funtzionarioak daudenez lanean, hori guztia kudeatzeko hobe da adituen esku uztea.

## **33. Datuak, taulak eta grafikoak interpretatzen**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*  
*Materiala: Ikaslearen liburua, 36-37. or.*

Euskal Herriko industrializazioari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikasleek bakarka, liburuan proposatutako prozedurari jarraituz, lerro-diagrama osatu eta grafikoak interpretatuko dituzte. Bukatzean, talde handian berrikusiko dugu.

### 34. Industrializazioa Euskal Herrian

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*  
*Materiala: Ikaslearen liburua, 37. or.; DVDa*

Bizkaiko industrializazioaren ondoren, nahiko azkar hasi zen industria garatzen Euskal Herriko beste toki batzuetan ere, zein industria mota eta zehazki zein tokitan kokatu ziren jakiteko, ikasleek testua bakarka irakurri eta maparekin erlazionatuko dute. Gero, talde handian elkarrizketa sortuko dugu irakurritakoaren inguruan hitz egiteko.

### 35. Langileak eta lan baldintzak

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian/Talde handian*  
*Materiala: Ikaslearen liburua, 38. or.; Abestien CDa, 22.pista.*

Tarte bat emango diegu ikasleei, Industria Iraultzaren etorrerak Euskal Herriko langile eta lan-baldintzetan izandako eraginaz hitz egiten duen testua. bakarka irakur dezaten. Ondoren, hiru laguneko taldeetan antolatutako jarduera egingo diote. Horren ostean, talde handian bateratze-lana egingo dugu.

Hemen duzue sindikalgintzarekin zerikusia izan zuen hainbat pertsonaiaren inguruko informazio laburra:

#### **Perezagua, Facundo**

Politikari bizkaitarra (Toledo, 1860 - Bilbo, 1935). Madrilgo *El Porvenir* elkarte sozialistako lehendakaria izan zen (1880). Bilboko lehen elkarte eta sindikatu sozialista eratu zituen (1886). Sozialisten barruko joera erradikalaren buru izan zen 1890az gero. Hizlari gogorra, larderiatsua eta zakarra zen eta alderdian bertan tirabirak izan zituen PSOeko buruzagiekin; ondorioz, alderditik egotzi egin zuten (1915). 1919an PSOEn sartu zen berriro eta 1921ean Bizkaiko Alderdi Komunista sortu zuen zatiketaren eragile izan zen.

#### **Ibarruri Gomez, Dolores (izg. Pasionaria)**

Politikari bizkaitarra (Gallarta-Abanto, 1895 - Madril, 1989). Meatzari-familia batean sortu zen. Gaztetan marxista bilakatu eta 1917ko greba iraultzailean meatzarien buru izan zen. Espainiako Alderdi Komunistako komite zentraleko kide (1930) eta Gerra Zibilean alderdiko propagandista garrantzitsua izan zen. Kongresurako diputatu hautatu zuten Asturiasen (1936). Gerra Zibila amaitutakoan Moskura atzerriratu zen eta errefuxiatuentzako laguntza antolatzen jardun zuen. PCEko idazkari nagusi (1942-60) eta lehendakaria izan zen (1960). Atzerritik itzuli eta berriro Kongresurako diputatu hautatu zuten Asturiasen (1977). Emakumearen, eta batez ere emakume langilearen, alde lan itzela egin zuen.

#### **Iglesias, Pablo**

Politikari espainola (Ferrol, 1850 - Madril, 1925). Espainiako sozialismoaren figura nagusia, PSOE (1879) eta UGT (1888) sortu zituen, eta bietako lehendakaria izan zen. *El Socialista* egunkaria fundatu zuen. Espainiako langileen lehen greba antolatu zuen (1882).

### **Iglesias Garrigos, Juan**

Politikari bizkaitarra (Bilbo, 1915). UGTko kidea (1930) eta Juventudes Socialistas-eko idazkaria izan zen (1935). Gerra Zibilean atxilotu eta, hasieran heriotza-zigorra, baina gero biziarteko kartzela-zigorra ezarri zioten. 1938an ihes egin eta PSOE berrantolatzen aritu zen. 1947an Ipar Euskal Herrira alde egin zuen eta Euzko Jaurlaritzako kontseilaria izan zen (1970). Franco hiltzean Bilbora itzuli zen (1976). Euzko Kontseilu Nagusiko eta Euzko Jaurlaritzako kontseilaria izan zen aldi berean. Bi karguak utzitakoan Euskal Herriko PSOEko lehendakari izendatu zuten (1977). 1982an erretiratu egin zen politikatik.

### **Redondo Urbietta, Nicolás**

Sindikalista bizkaitarra (Barakaldo, 1927). Sindikalismoaren aldeko borroka klandestinoan ibili zen; 1945ean UGT sindikatuan eta *Juventudes Socialistas* taldean sartu eta bietako Hego Euskal Herriko arduradun nagusia izan zen. 1961ean atxilotu egin zuten eta harrezkeroztik behin eta berriz egon zen preso. UGTko idazkari nagusia (1976-94) eta Bizkaitik PSE-PSOeko diputatua izan da (1977, 1979, 1982 eta 1986). Politika ekonomikoa ongizate sozialera begira egitearen aldekoa, PSOEren gobernuaren politikaren aurka bideratu zuen sindikatua; hala, diputatu-kargua utzi egin zuen (1987).

Jarduera honen bigarren zati gisa, CDko “Euskadin, Castillan bezala” abestia entzun, eta haren letrari erreparatzea izango dugu hurrengo lana: *Zein da abestiaren gaia? Zertaz hitz egiten du? Aurreko jarduerako lau ideietako zeinekin lotuko zenuke kanta? Zergatik?*

Jarduerari amaiera emateko, musikarekin batera, kanta abestuko dugu.

### **EUSKADIN, CASTILLAN BEZALA**

Hitzak: Mikel Azurmendi

Musika: Imanol

Ene Segurako aitona  
ogia behar zuenean  
Castillara joaten zen  
jornalaritzara,  
garietara.

Bere igitai trebenetakoa omen zen  
bai, hori bai...  
Hamar haur zituen gosez etxean  
bai!, hori bai!

Castillako jornalariak  
ogia nahi dutenean  
Goierriara joaten dira  
jornalaritzara,  
fabriketara.

Kanpokoak bizkorrak omen dira peontzan  
bai, hori bai...  
Hamaika haur badute gosez etxean  
bai!, hori bai!

Castillako soroez eta Goierriko tximiniez  
ene aitona eta kastellanoak  
jabe bazeneza, (jabetuko balira),  
euren haur(ren) haseak  
ez lukete ihes gehiagorik ikusiko!  
ez Castillan, ez Euskadin.  
Bai, hori bai!

### **36. Prentsa: Lanari buruzko berriak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 39. or.; lan-koadernoa, 52-53 or.; CD-ROMa*

Talde txikietan antolatuta, ikasleek, eurek aukeratutako prentsa mota (digitala nahiz paperezkoa: egunkari, aldizkari, astekari...) aztertu, eta lan munduarekin zerikusia duten berriak bilatzeari ekingo diote. Berri horien titularrak eta azpititularrak irakurrita, berriaren gai nagusia identifikatzeko (lanuzte, greba, lanpostu berriak...) eskatuko zaie, eta baita ere, gaiak kontuan izanda, uneko lan munduari buruzko ondorioak ateratzeko.

Liburuak proposatzen duen jarduera talde handian irakurriko dugu, ondoren, ikasleek lan-koadernoko jarduera bakarka osatuko dute, lanarekin zerikusia duten eta prentsan aurkitu ditzaketen hainbat hitzen esanahia ezagutzeko. Jarraian, talde txikietan jarduerak proposatutakoa egingo dute; bukatzean, talde handian, bateratze-lana eginez egindakoa berrikusiko dugu.

Gogoan izan, CD-ROMean, lexikoa (sinonimoak, antonimoak, familia lexikoak...) lantzeko hainbat jarduera dituzuela.

### **37. Proiektuaren bigarren fasea: Oroimena eta inprobisazioa**

*Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 39. or.*

Aurreko unitatean (Txanela 6.3), memoria lantzeko prozedura ezagutu eta praktikatu genuen. Unitate honetan, antzerki-gidoia buruz ikasi behar dutenez, prozedura hori gogora ekarriko dugu, talde handian, urrats bakoitzak antzerki-gidoia ikastearekin izan dezakeen erlazioaz eta garrantziaz hitz eginez. Beharrezkoa balitz, kontsulta ezazue aurreko unitatea.

Bestetik, eman iezazkiezue tartekak ikasleei gidoia ikasteko. Batzuetan, lan hau bakarka egin dezakete eta besteetan taldetxoetan. Bakoitzari dagokion atalak buruz jakiteaz gain, oso garrantzitsua da aurretik eta ondoren hitz egiten duenaren testua ezagutzea; horrela, bakoitzaren jarduna zein unetan den argi jakingo dute ikasleek. Beraz, tartekatuz egin proba-saiotxoak.

Inprobisazioari dagokionez, memoriak kale egiten duenerako alternatiba gisa aurkezten badugu ere, ikasleen sormena lantzeko teknika ere bada; horregatik, ikasleak teknika horretan treba daitezen dramatizazio-jolasak egitea proposatzen dizuegu:

#### **Egoeren argazkiak**

Gelakideak zortzi laguneko taldetxotan antolatuko dira. Talde bati egoera jakin bat inprobisatzea dagokionean, beste ikasle guztiak ikusleak izango dira. Irakasleak une bakoitzean egokitzen zaion taldeari egoera jakin bat proposatuko dio isilpean (ikusleek zein egoera den jakin ez dezaten). Egoera esan bezain pronto, bost segundo eman eta ikasleek egoera horretako elementu, pertsonaia edo egoki ikusten duten zerbait egiten hasiko dira, baina argazki bat balitz bezala, irudi izoztu gisa.

Adibide bat jarriko dugu. “Matematikako gela” esanez gero, gerta daiteke ikasle bat atzamarrekin zenbatzen arituko balitz bezala egitea, norbaitek irakasle papera hartu izana, arbelean idazten ari dena, beste norbaitek eskua altxatua izatea, erantzuna jakingo balu bezala, etab... Kontua da, egoera (argazki) hori, bat-batean sortua izango dela, eta ikasleen artean aldez aurretik prestatu gabekoa. Ikusleak argazki bat ikusi bezain pronto, adierazten dena asmatzen saiatuko da. Gerta daiteke, argazkia ez izatea oso argia edo esanguratsua eta horregatik ikusleei asmatzea zaila suertatzea. Hori gertatuz gero, irakasleak, “argazkia mugimenduan” esan eta argazkiko elementuak mugitzen hasi daitezke, hamar bat segundoz. Mugimenduak pista ugari ematen ditu eta, era berean, dramatizatzen ari direnei birkolokatzeko, zuzentzeko, rol berriak hartzeko eta egokitzeak aukera ematea komeni da, betiere, bat-batean eta inprobisatuz. Hamar segundoak pasa ondoren, irakasleak berriro, “argazkia” esan eta ikusleek beste aukera bat izango dute zein egoera den asmatzeko. Egoera asmatu ostean, hurrengo taldeari egokitu zaio beste egoera bat dramatizatzea.

### **Egoerak**

- |                     |                |                  |
|---------------------|----------------|------------------|
| - Matematikako gela | - Gimnasio bat | - Western zinema |
| - Parkea            | - Zinema       | - Dorre bikiak   |
| - Igerilekua        | - Hileta       | - Ezkontza       |
| - Festak            | - Barrakak     | - ...            |

### **- Hainbat elementu gorputzarekin adierazten**

Jolas hau binaka egitekoa da. Ikasle batek elementu bat pentsatu eta bere gorputz osoarekin adieraziko du; adibidez, katilu bat: tente eta beso bat gerrian jarriko du, katiluaren heldulekua balitz bezala. Orduan, bere bikotea, lagunaren gorputzak adierazten duen postura aintzat hartuta, hark sortutako hutsuneak betetzen saiatuko da bere gorputzarekin. Eta beste postura batzuk sortuko dira. Katilua den laguna bere tokitik aterako da, eta lagunaren gorputzak (aurreko posturan izoztua geratu dena) utzitako hutsuneak beteko ditu bere gorputzarekin; horrela ibiliko dira biak etengabe, beste postura batzuk sortuz, bat-batean.

Jarduera hau, lehendabizi, ikuslerik gabe egingo dugu, eta ondoren:

- Gela erdia ikusle bihurtzen da (*Nola sentitzen gara? Zer aldatu da? Lotsarekin gai al naiz esandakoa betetzeko?*). Jendaurrean aktuatzen ikasi behar dugu.
- Ikusleek hasieran behaketa besterik ez dute egingo. Gero, posturak azken argazki bihurtzen direnean, iradokitzen dutena ahoz adierazten hasiko dira, izenburua jarrita; adibidez: *Maitasuna, Ama-alabak, Lurra-ilargia, Garaipena, Asperdura...*

### **- Ni... banintz, zu zer izango zinateke?**

Irudimen dramatikoa lantzeko, talde handian eta bat-batean sortzen den jolasa da.

Zotz egin eta egokitu zaion ikasleak zera dio: “ni mahaia banintz”, eta katuka jarriko da, lau hanka balitu eta mahaia balitz bezala. Orduan, bat-batean, hurrengo batek dio: “ni loreontzia nintzateke”, eta bere gainean eseri eta loreontzi itxura hartuko du. Horrela, egoera jakin bat edo agertoki bat osatu arte jarraituko genuke jolasten. Lagun guztiak bertan daudenean, eszena hori bi minutuz bizitu egingo da. Talde handian jolastu ondoren, talde txikietan ere antolatu dezakezue jolasa.

### **- Lanbideak asmatzen**

Taldeka lanbide jakin bat aukeratu, eta hura mimika bidez adierazteko egoera jakin bat asmatu eta dramatizatuko dute ikasleek. Beste taldekoek lanbidea eta adierazitako egoera asmatzen hasiko dira, betiere, dramatizatuz eta hitzik egin gabe.

## **INDUSTRIALIZAZIO ONDORENGO GIZARTEA**

### **38. Industrializazioa eta lan-sektoreak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 40. or.*

Industrializazioak gizartean izan duen eraginaren berri izateko, atal honetan, hainbat dokumentu (grafiko, taula, testu...) interpretatu eta ondorioak atera beharko dituzte ikasleek.

**Aztertuko dugun lehen alderdia, industrializazioa eta lan sektoreen arteko erlazioa izango da.**

Orrialde honetan, datu taula eta grafikoa interpretatuaz, industrializazioak Euskal Herriko lehen sektorean izandako eraginaz jabetuko dira ikasleak, bide batez lehen sektorea zeri esaten zaion ikasiz.

Jarduera talde handian osatuko dugu, grafikoaren interpretazioa eta ondorioak ateratzeko, aurretik, talde txikian, hausnartzeko tartea emanez.

### **39. Lan sektoreak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Binaka*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 41. or.*

Tarte bat emango diegu ikasleei, bakarka, sektoreei buruzko informazioa irakurri eta taula edo eskema bidez, informazio garrantzitsua sintetizatu dezaten. Ondoren, talde handian, eta laburpen teknikari buruzko irakaslearen azalpenak lagun, eskema edo taula arbelean osatuko dute, bakoitzak koadernoan egindakoa berrikusi eta zuzentzen duen heinean. Bukatzean, ikasleak binaka jarrita, koadro horretako informazioa (lan sektoreei buruzkoa) lagunari ahoz adierazten saiatuko dira.

### **40. Grafikoak osatzen eta interpretatzen (2. eta 3. sektoreak)**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 41-43. or.; lan-koaderno, 54-56 or. eta CD-ROMa*

41. eta 42. orrialdean ikasleei osatzea eskatzen zaizkien grafikoei heldu aurretik, horien osaketan eta interpretazioan treba daitezen, lan-koadernoan proposatzen zaien jarduera bakarka osatuko dute ikasleek. Bukatzean, taldean berrikusiko dugu. Gogoan izan, CD-ROMean, eduki hori lantzeko beste jarduera batzuk ere badituzuela.



Ondoren, bakarka, liburuan proposatutako bi grafikoak (2. eta 3. sektoreei dagozkienak) osatu eta interpretatzeko tarte bat hartu ostean, industrializazioak Euskal Herriko probintzietako bi sektoretan izandako eraginaren inguruan hitz egin eta ondorioak ateratzeko elkarrizketa sortuko dugu talde handian.

Bukatzeko, talde handian, ikusitako gaiaren laburpena osatuko dugu arbelean, hau da, **industrializazioak lan-sektoreengan izandako eraginari** dagokiona. Horretarako, liburuak berak proposatzen dituen esaldien artean aukeraketa eta euren arteko lotura zuzena egingo dugu. Ikusitakoarekin, eta egindako laburpenarekin, hipotesi bat formulatuz bukatuko dugu jarduera. **Herrialde bat industrializatzeko prozesuan** zer geratzen den adieraziko dugu; alegia, **nola aldatzen den hiru lan-sektoreen garrantzia bilakaera horretan zehar.**

#### **41. Industrializazioa eta biztanleria**

*Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 43-44. or.*

Industrializazioak biztanleriarengan izan duen eraginaz jabetzeko, liburuko jarduerak proposatutako urratsei jarraituko diegu. Ikasleak, bi edo hiru laguneko taldeetan antolatuta egingo dute proposatutako azterketa, eta, bukatzean, talde handian egindakoa berrikusiko dugu.

#### **42. Lagunarteko elkarrizketa**

*Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 44. or.*

Hamar bat minutu emango diegu ikasleei, lau laguneko taldeetan antolatuta, aberastasunak munduan gaizki banatuak egotearekin lotura duten hiru gairen inguruan hausnartzako. Ondoren, talde handian, elkarrizketa sortuko dugu gai horren inguruan aipagarriak diren ideiak bateratzeko.

#### **43. Hitz-errota**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 45. or.*

Unitatean zehar, gure gizarte mota honek (bere asmakuntza eta aurrerapenekin) alde onak, baina, baita arriskuak eta kalteak ere badituela ikusi dugu. Gaiari buruzko hainbat gogoeta egiteko, liburuan agertzen diren hainbat gairen iturri izan daitezkeen ideietatik abiatuta, talde handian, hitz-errota egitea proposatzen dizuegu, liburuak berak proposatzen dituen urratsei jarraituz.

#### 44. Kanta-kantari

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 46. or.; CDa, 21.pista.*

Tarte bat emango diegu ikasleei abestia (*Kutsadura*) irakurri eta proposatutako galderen inguruan hausnartzeko. Gero, elkarriketa sortuko dugu, aurrerapenak eta kutsaduraren arteko erlazioaz hitz egiteko eta ondorioak ateratzeko.

#### 45. Proiektuaren bigarren fasea: Ahotsaren adierazkortasuna

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 46. or.*

Bonbillan adierazi bezala, ahotsaren alderdiei buruz dakiguna gogora ekarriko dugu, talde handian. Gogoan izan, Txanela 4.4. (irakurketa dramatikoa), Txanela 5.5. (44. or. soinuaren ezaugarriak) eta Txanela 6.3. (23. or, jendaurreko aurkezpenak) unitateetan landu genituela alderdiok.

Ahotsaren hainbat alderdi lantzeko eta horietan trebatzeko asmoz, jarduera batzuk proposatzen dizkizuegu. Talde handian nahiz talde txikitant antolatuta, gure antzerki gidoiko testu zati bat aukeratu (esaldi batzuk), eta irakurketa dramatikoa egingo dugu. Hona hemen, zenbait gauza lagungarri:

- Intonazioa lantzeko hainbat emozio erabili; adibidez: triste, negarrez, haserre, urduri, lotsati... (marraztutako sentimenduen maskarak erabil daitezke).
- Karakterizazioa lantzeko egiteko galderak: *Koro bat izango bagina nola irakurriko genuke? Eta harri-jasotzailea harria jasotzen? Txerri batek? Ume txiki batek? Aitona batek? Munstro batek?...* Ikasleei galdetu beste nork bezala irakurriko dugun orain.
- Pausaldiak markatzeko. Taldean irakurketa egiten bada koreografia antzeko zerbait sortu dezakegu pausaldi horiek ongi markatzeko. Gorputz mugimendu horiek arnasa hartu eta botatzeko aukera emango digute, eta aldi berean errezitaldi original bat sortzen lagundu. Adibidez: besoen mugimendu zehatz eta nabarmen batekin arnasa hartu eta bota (besoak gora, arnasa hartuz, eta behera, airea botaz), edo hanka bat igo eta jaitsiz. Milaka aukera daude.

#### 46. Bertsoz

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 47. or.; Irakurgaiak, 112-114. or.; CDa, 25. pista;*

*Lan-koadernoak, 57-60. or.*

“Bertsoz” sekuentzian entzundako eta irakurritako hainbat bertso aztertu eta horien ideia nagusia eta asmoa identifikatuko ditugu. Jarduera talde handian, nahiz talde txikitant osa dezakezue, talde bakoitzak bertso ezberdinak aztertuz. Proposatutako bertsoez gain (irakurgaietakoak; CDko *Gizon arruntaren koplak*;

DVDko *Gaur egun bada mila aurrerapen*, J. M. Areitio, N. Elustondo) nahi dituzuen beste bertso batzuk ere izan ditzakezue aztergai.

Bestetik, lan-koadernoko sekuentziak zuen proiektua iragartzeko bertsoak osatzeko proposamen bat luzatzen dizue. Saiakera hori ikasleek bakarka egin dezatela, berrikustea, zuzentzea edo bertso berriak osatzea talde handian egingo baduzue ere.

#### 47. Bueltako komikia eta lagunartean

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 48-50. or.*

Komikia irakurri eta ondorengo bi orrialdeetako jarduerak osatuko ditugu. Bukatzean, aipatu ez den eta komikian agertzen den bestelako gairen baten inguruan hitz egin nahi baduzue, ireki ezazue elkarrizketa-tartea. Hemen dituzue aukerako hizpide izan daitezkeen gai batzuk.

- *Uxue, Jon eta Aitorrek, Maddi eta Alex besarkatuta eta Alex Maddiri musua ematen ikusi dute. Aitorrek era batean interpretatu du ikusitakoa, Jonek beste batean, Uxuek ez dio garrantzirik eman. Zer iritzi duzue horren gainean?*

Bada esaera bat esaten duena: “Ez ezazu sinetsi entzuten duzun ezer, eta ikusten duzunaren erdia besterik ez!”

Gai hori polita izan daiteke hau ikasleekin hitz egiteko: *Interpretazioak (okerrak, zuzenak) egin behar al dira?*

- *Zer esan nahi du Aitorrek esaldi honekin: BA, LAN KONTUEZ... HEMEN EZ DAKAR BERRI ONIK!*

-...?

#### IKASTEN IKASI: HUTS EGITEAREN AURREKO JARRERA ETA JOKABIDEA

Jarduera honen helburua, bizitzako hainbat esparrutan, huts egitearen aurreko jarrera eta jokabidearen inguruan hausnartu eta era egokian ekiten ikastea da.

Talde handian, liburuak adierazi bezala, jarduerak osatuko ditugu. Liburuko hainbat alderdi sakontzeko, irakasleari lagungarri gertatuko zaizkiolakoan jarri ditugu hainbat ideia.

- **Huts egitea**, norbaitek edo zerbaitek bere jardunean nahi zuen, behar zuen, edo espero zuen emaitza ez lortzea da.
- **Ekinaldia**, zerbaiti ekiten zaion aldiako bakoitza; bereziki helburu jakin batez eratzen diren ekintzen multzoa.

Inork ez du atsegin huts egitea. Huts egitean, gehienetan, bi jarrera izaten dira ohikoak:

-*Gertatutakoari baikor begiratzea eta horren arabera ekitea. Tolerantzia izatea, huts egitea onartzea (gaizki atera zait, baina ez dut neure burua errudun jotzen, ez dut aurreiritzirik); egindakoa aztertzea (gertatutakoa aztertu inolako aurreiritzirik gabe, zein izan den eragiketa eta zein emaitza); ondorioak ateratzea (hau eginez gero hau gertatzen denez... hau ez da egin*

*behar*), irakaspen gisa hartzea (*ikasitakoak*); eta aurrera egiteko bide berriak eraiki eta gogotsu ekin (beldurrik gabe ekin) lorpenen bila.

-*Gertatutakoari modu ezkorrean begiratzea eta horren arabera ekitea*. Huts egitean, geure burua edo besteena errudun jotzen dugu, eta ez diogu barkatzen egindakoa. Norbere estimurako kaltegarria da jarrera hori, norbere buruarengan konfiantza galtzen baita beldurrak eta mamuak sortuz, egoera bertsuen aurrean.

Bestetik, ekar itzazue gogora aurreko unitateetan ikasitakoak: ahalegina eta konstantziaren ideia, pazientzia (bat-bateko lorpenak itxaron beharrean pazientzia izatea eta lanari gogoz ekitea), pentsamendu baikorraren alde egitea, huts egiteei jarrera baikorrez begiratzea, ondo egindakoak baloratzea ahaztu gabe, eta gaizki egindakoari erreparatzea, betiere, irakaspen gisa hartzeko eta emaitza eta lorpen berriak izateko...

#### **48. Entzunaldia: Musikaz lagundutako ipuina**

*Kudeaketa: Talde handian*

Batzuetan, huts egite eta ekinaldi ugari izanda ere, lan baten emaitza ikusteko denbora asko pasa behar izaten da, edo behintzat gure ikasleek nahiko luketen baino denbora gehiago. Horrelako egoeretan ere, gogotsu eta konbentzimenduz lan egiten lagunduko dien musikaz lagundutako ipuina kontatzea proposatzen dizuegu. Ipuina, lurrean etzanda eta begiak itxita entzungo dute, atzetik zuek aukeratu duzuen musika entzuten duten bitartean. Bukatzean, eman ikasleei pare bat minutu ipuinaren inguruan hausnartzeko eta ondoren, har ezazue tarte bat pazientziaz, lanaz eta lorpenez hitz egiteko, eta euren ikasketekin erlazionatzeko.

##### **JAPONIAKO BANBUA**

Ez da zertan nekazaria izan behar jakiteko, uzta oparoa, hazi eta ongarrri on eta ureztatze egokiaren fruitu dela. Jakina da, baita ere, lurra lantzen duena ez dela landatu berri den haziaren aurrean pazientziarik gabe jesartzen eta indar handiz oihukatzen hasten: *Hasi behingoz!* Lagun asko dira munduan, pazientzia txikia dutenak, eta gaitasun hori lantzeko bada Japonian askoren ahotan izaten den kontutxo bat, sarri ikasleei kontatzen zaiena.

Jo dezagun, banbua landatu duzula. Banbuaren hazia erein, ongarritu eta behar beste ureztatzen arduratzen zara. Lehenengo hilabeteetan ez da ezer nabarmenik gertatzen. Ezta hurrengo zazpi urteetan ere. Esperientzia gabeko lagun batek etsi eta hazi antzua erosi duela pentsatuko luke. Baina, aldiz, zazpigarren urtean, sei aste epean, banbu landareak, 30 metrotik gorako altuera hartzen du. Zenbat denbora behar izan du landareak hazteko? Sei aste akaso? Ez. Zazpi urte eta sei aste behar izan ditu garatzeko. Hasten ez zela zirudien lehenengo zazpi urteetan, sei asteren buruan izango zuen garapenerako oinarri korapilatsua duen sustrai-sistema sortzen ari baitzen.

*-Zein da kontakizun horren irakaspena? Zer adierazi nahi du? Zerbaitetan baliagarria izango zaizula iruditzen al zaizu? Zertan eta zergatik?*

## 49. Auzolana eta elkartasunez egiten diren ekintzak

*Lan egiteko era: Talde txikian- Talde handian*

Jarrera ekintzailea bultzatzeko jarduera gisa aurkezten dugu aukerako jarduera hau, egoki ikusten duzuen unean gela mailako proiektu gisa martxan jarri dezazuen. Ausartuz gero, egokitu eta ikastola osoko proiektu ere bihur dezakezue.

### PROIEKTUA: DENBORAREN BANKUA, LAGUNTZA TRUKEA

#### HELBURUAK

Gizartean hain hedatua dugun lanaren eta diruaren arteko lotura beste ikuspegi batetik aztertzea.  
Elkarlana bultzatzea  
Jarrera ekintzailea bultzatzea. Elkarlana antolatzea  
Aniztasuna baloratzea  
Laguntza hartu eta ematen ikastea  
Norberaren gaitasunen inguruan hausnartzea  
Norberaren estimua eta balioa sendotzea

#### SORMENA

- Denboraren bankuaren inguruko informazioa bildu. Internet, egunkarietako artikulak... (<http://www.auzopolis.net/eus/index.htm>)
- Auzolanaren inguruko informazioa eskuratu eta hausnartu.
- Diruaren eta bankuen erabilera aztertu.
- Gelan eta ikastolan ikasleek dituzten beharren azterketa egin eta ikasleen trebetasunen, gustura burutuko lituzketen lanen edo laguntza jasotzea gustatu litzaiekeen lanen zerrenda osatu. Horretarako, talde txikietan lehenbizi, eta talde osoan ondoren, ikasleek elkarri laguntzeko eskaini ditzaketen laguntzak osatu: gaixo dagonean etxeko lanak eramatea, zailtasuna duen lanetan laguntza eskaintzea (matematikako problemak, jarduera puntualak, informatika-saioak...), hizkuntza beharrak dituztenekin mintza-praktikak egitea (euskara, ingelesa...), gelako arduraren bat bete behar denean eta ezin denean ordezkatzeta...
- Denboraren bankua sortzeko erabakia hartu.

#### PLANIFIKAZIOA

- Denboraren bankua zer den, nori zuzendua, zer eskaintzen duen eta nola funtzionatzen duen idatzita jaso orri batean.
- Izena asmatu eta logoa diseinatu.
- Bankuaren idazkaria hautatu eta eginkizunak eta ordezkatzeko sistema erabaki.
- Bazkidetzeko sistema adostu eta bazkide txartela sortu.
- Denbora-txekea sortu. Gutxieneko denbora-unitatea zehaztea komeni da txeke-unitatea zehazteko.
- Elkarren arteko giroa eta konfiantza indartzeko elkartasun-jolasak, festatxoak... antolatu.

#### KUDEAKETA

- Ikasle bakoitzari orri bat banatzea bankuari eskaintzeko prest egongo litzatekeen hamar gauza eta bankutik jasotzea gustatuko litzaizkiokeen beste hamar idatz ditzen. Bildutako erantzun guztiekin txosten bat osatuko da eta bazkide guztien eskuetan jartzen da bankuari eskatzeko edo eskaintzeko lanen berri izateko.
- Bankuaren bazkide izateko orria bete.
- Bankuaren zerbitzuak erabili, txekeak.
- Idazkari-lanak egin, kontuak eramateko orria osatuz, txeke bidez ordainduz, adostutako arauak aplikatuz (zorrak pilatzen dituenari abisuak emanaz).

#### EBALUAZIOA

- Taldean adostu itzazue zein alderdi ebaluatuko dituzuen, eta. Bukaeran balioespina egin.

**Izena emateko aukerako fitxak:**

Bazkide zkia: .....
Izen emate data: .....

**DATUAK**

Izen-deiturak: .....
Jaiotze-data: ..... Sexua: .....
Helbidea: ..... Posta kodea: .....
Tel: ..... Harremanetarako ordutegia .....
Posta elektronikoa: .....

**INTERESEKO BESTELAKO DATU BATZUK**

Ikasketak: .....

Zaletasunak: .....

**Eskaintzen duen jarduera edota zerbitzua(k) eta ordutegi egokiak**

Jarduera edota zerbitzua(k)	Eguna eta ordutegi egokiak
- .....	- .....
- .....	- .....
- .....	- .....

**Behar duen jarduera edota zerbitzua(k) eta ordutegi egokiak**

Jarduera edota zerbitzua(k)	Eguna eta ordutegi egokiak
- .....	- .....
- .....	- .....
- .....	- .....

**50. Proiektuaren hirugarren fasea: proba-saioak**

*Lan egiteko era: Talde handian*  
*Materiala: Ikaslearen liburua, 50. or.*

Antzerki-muntaketa prestaketako 3. faseari helduko diogu orain; alegia, aurrekoetan ikasitakoa aplikatuz antzezlanaren **azken proba-saioak** egiteari eta azken xehetasunak erabakitzeari. Horretarako, jarrai iezaezue liburuan proposatutako urratsei.

## **51. Entzunaldia: meditazio aktiboa**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: 50. or.; CDa, 26. pista.*

Ikasleek dagoeneko hainbat erlaxatze-teknika ezagutu eta landu dituzte Txanelako hainbat unitatetan: bisualizazio gidatuak, libreak, arnasketa bidez, masajea...

Oraingo honetan, beste teknika bat jarriko dugu praktikan, meditazioa aktiboa.

Meditazio horrek hiru zati izango ditu. Zati bakoitzean eginkizun bat izango dugu; hor adierazten dira. Meditazio osoa begiak itxita egingo dugu, beharrezkoa balitz, begiak zapi batekin estalita.

Meditazioaren urratsak eta eginbeharrak:

1. Musikaren erritmoari jarraituz, gorputz guztia astinduko dugu, askatzeko asmoz.
2. Musikaren erritmoari jarraituz, dantza lasaia egingo dugu.
3. Lurrean eseriko gara eta musika aktiboki entzungo dugu.
4. Lurrean etzan egingo gara, ez da muskarik entzungo, baina gure gorputz erlaxatuaz gozaten saiatuko gara.
5. Irakasleak, krotalo edo gong bat joko du, meditazioa bukatu den seinale izango dena.

Meditazioa bukatzean, astiro-astiro, ikasleek gorputza mugitzen hasiko dira, nagiak atera, luzatu... Gero, korroan eseriko gara esperientziaz hitz egiteko.

## **52. Proiektua gauzaten**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: 51. or.*

Honezkero, antzerki-gidoia ikasita, hura antzezteko adierazpenen eta tekniken erabilpenean trebatuta, ikasitako guztia aplikatuz proba-saio orokorrak ere eginda izango dituzue. Beraz, azken orduko prestaketa-lanak eta erabakiak hartzea besterik ez zaizue falta; egin itzazue, eta hasi proiektua eskenaratzeko lanetan.

### 53. Sintesia

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Ikaslearen liburua, 52-56. or.; Irakurgaiak, 115-118. or.*

Unitate honetan hainbat eduki (kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak) landu dira. Horietako batzuk prozesuaren baitan behatu eta ebaluatu beharrekoak (antzerki-muntaketa martxan jartzeko egin duzuen prozesuari dagozkion fase guztiak, arte-hezkuntzako lanak, dramatizazio-jarduerak – tekniketari trebatzea–, elkarrizketak...) dira, horretan hartzen baitute zentzua. Baina badira beste batzuk, unitate bukaeran ebaluatu daitezkeenak eta ebaluatuko ditugunak. Orrialde horiek, ikasleei eta baita irakasleei ere, lan hori errazteko pentsatuak izan dira. Unitatea landu ahala egindako lanari begiratzeko parada emango digute, hainbat balorazio egiteko, ikasleek eurek dakitenaz jabetzeko eta ez dakitenaz ohartuz, erreparatu eta ikasi beharrekoa sakontzeko aukera emanaz.

Sintesian proiektuaren balorazioaz gain, unitatean landutako hainbat alderdi gogora ekarri eta behatzeko aukerako jarduerak dituzue.

Proiektuaren bakarkako balorazioa egin ostean, talde handian sortutako elkarrizketa bidez talde osoko balorazioa egingo dugu.

Balorazio-orriaren osteko jarduerari dagokienez, ikasleek bakarka horiek egiten hasi aurretik, irakurgaietako testua taldean irakurriko dugu eta baita unitate osoari begiratu eman ere. Ariketa horien berrikusteak eta zuzenketek ikasleek indartu beharreko alderdien berri emango diote irakasleari.

### 54. Non edo han, gure txanelan?

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

Liburuan proposatzen den moduan, antzezlanak euskarri digitalean filmatu baduzue, egin ezazue kopia bana ikasleko eta oroigarri polita izango dute urte batzuk barru ikusteko.

Lan horiek egiteko, hitz egin ezazue taldean: nork, noiz... egingo dituen kopiak, karatulak...



# Musikako lan-koadernoia

## LAUGARREN UNITATE DIDAKTIKOA

### 4.1. Nota aldatua: *bemola*

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka

Materiala: Musikako lan-koadernoia, 4.1. fitxa

**OHARRA:** Fitxa honi ez dagokio CDaren entzunaldirik.

Lengoaia musikaleko ikur bat dugu *bemola*. *Diesea edo sostenituaren* antzera, nota aldarazten du, baina guztiz kontrako eragina du. *Dieseak* nota tonu erdiz igoarazten duen bezala, *bemolak* tonu erdiz jaitsarazten du nota.

Piano bat edo teklatu bat eskura baduzue, erakutsi ikasleei tekla beltzak, eta tekla beltz berbera nota baten sostenitua eta hurrengoaren *bemola* dela konturatuko dira. Adibidez: **la** eta **si** noten tartean dagoen tekla beltza, **la#** eta **si $\flat$**  da aldi berean.

Nota aldakarituen gai hau hobeto ulertu asmoz, adibide bat erabiltzea pentsatu dugu. Eta, adibideen artean, ordulariarena aukeratu dugu, non *dieseak* edo *sostenituak* ordu erdia edo 30 minutu aurreratzeko ahalmena duen eta *bemolak*, berriz, ordu erdia atzeratzekoa.

Lan-koadernoan agertzen diren antzeko zenbait adibide arbelean egin ondoren, zenbait galdera luzatuko dizkiegu ikasleei:

- Ea, Larraitz, zure auzoko festak dira eta gurasoei gaueko dantzaldira joateko baimena eskatu diezu. Gurasoek baiezkoa eman dizute, baina 12:00etan etxean egon behar duzula diote. Goiz samar iruditu eta tirabiran hasi zarete. Azkenean, **12:00#** arteko baimena lortu duzu. Zer ordu da hori? (12:30)
- Ea, Lander, hondartzan zaude gurasoekin. Bazkaldu berriak zaudete eta zuk uretara joan nahi duzu. Amak, ordea, digestioa egin behar duzula eta 16:00ak arte ezin zarela bainatu dio. Denbora pasatzen ari da, baina oraindik asko falta da. Eztabaida piztu eta gurasoek etsi eta beste ordu bat ezarri dute: **16:00 $\flat$** . Zer ordutan bainatuko zara? (15:30)

Hona hemen lan-koadernotik harturiko adibideak:

$$07:00b = 07:00 - 30' = \mathbf{06:30}$$

$$03:00\# = 03:00 + 30' = \mathbf{03:30}$$

$$05:00b = 05:00 - 30' = \mathbf{04:30}$$

$$10:00\# = 10:00 + 30' = \mathbf{10:30}$$

$$08:00\# = 08:00 + 30' = \mathbf{08:30}$$

$$02:00b = 02:00 - 30' = \mathbf{01:30}$$

Ondorengo betebeharra ordularietako orratzak marraztea da. Ordulari bakoitzaren ondoan kontuan hartu beharreko ikurra ipini dugu.

$$09:30 = \mathbf{09:00\#}$$

$$12:30 = \mathbf{13:00b}$$

$$05:30 = \mathbf{06:00b}$$

$$02:30 = \mathbf{02:00\#}$$

Azkeneko lantxoan ordua emana dago. Ikasleek orratzak marraztuko dituzte, ondoren erabiliko den ikurra kontuan hartuta. Ikusten duzue bi aukera daudela. Biak ondo daude.

$$07:30 = \mathbf{07:00\#}$$
 edo  $\mathbf{08:00b}$

$$11:30 = \mathbf{11:00\#}$$
 edo  $\mathbf{12:00b}$

## 4.2. Txirula jotzen ikasten: *Sib*

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde txikian*

*Materiala: Musikako lan-koadernoan, 4.2. fitxa*

**OHARRA:** Fitxa honi ez dagokio CDaren entzunaldirik.

Lan-koadernoan bertan aurkitzen dira nota berria jotzeko jarraitu beharreko urratsak. Ez pentsa erraza denik. **Fa** nota jo behar izango bagenu bezala, bost zulo itxi behar dira. Horraino erraza da. Baina, gero, **la** notari dagokion zuloa ireki behar da. Beraz, behar-beharrezkoa da entrenamendu saioak egitea.

Lehen saiakerak egiteko, hiru ariketa proposatu ditugu. Beti bezala, gauza simple eta errazekin hastea proposatzen dugu. Mantso hasi eta azkartuz joan.

Hala ere, ariketa gehiago egitea komeni da, eta ziur gaude asmatuko dituzuela.

## 4.3. Txirula jotzen ikasten: *Melodia*

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoan, 4.3. fitxa; Jardueren CDa, 18. pista*

Hona hemen melodia ezagun bat, oraintxe ikasi dugun nota berria erabiliz kanta egitura duen zerbait jotzeko. Jarraitu beharreko prozedura betikoa da, baina adi **si** nota jotzean. Normalean, **solen** ikurraren ondoan jartzen da ikurra, eta hori nahikoa da pentagrama guztian agertzen diren **si** guztiak bemolak egin behar direla jakiteko. Hala ere, hasiera honetan, **si** guztiei gezi bat jarri diegu, inor despista ez dadin.

**Sib** saihesteko, aski genuke nota bakoitza tonu bat igotzearekin, hau da, **fa** maiorretik **sol** maiorra pasatzearekin. Modu horretan, ez genuke nota berri hori jo behar izango. **Do** maior tonalitateara jaitsiz gero, are eta errazagoa suertatuko litzaiguke oraindik.

Baina kasu askotan, abesti askotan, txirularen mugak kontuan izanda, bai goitik eta baita behetik ere, ezinezkoa izaten da horrelako transposizioak egitea. Beraz, has gaitezen, lehenbailehen, nota berri hori jotzeko ohitura hartzen.

Orain arteko saiakerak ongi egin baditugu, prest egongo gara “melodia” honekin hasteko.

Orrialde hau itxi baino lehen egiteko test moduko galdera batzuk prestatu ditugu *bemolaren* inguruan, eta honako hauek dira erantzun zuzenak:

- |      |                        |
|------|------------------------|
| 1. B | 3. C (DC kontuan izan) |
| 2. C | 4. C                   |

#### 4.4. Diktaketa lauko neurrian

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoan, 4.4. fitxa*

2.5 eta 3.5. fitxen erduei jarraituz egingo ditugu hemen proposatzen diren ariketak. Haiekin alderatuz, konpasaren neurria aldatu egin da, eta nola ez, aukeratutako notak: RE, MI, FA, SOL.

Jarraitu beharreko prozedura aurrekoetan bezalakoa da, errepika ariketak egitea ahaztu gabe.

Ez ahaztu ikasleei asmatu duten bertsoa kantatzeko aukera ematea. Bertso guztiak desberdinak izango dira, baina melodia bera izango da denentzako, ondo idatzi badute, behintzat. Beraz, aprobeixatu denek batera solfea dezaten eta txirula jo.

#### 4.5. Txirula jotzen ikasten: *Xarmagarria*

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoan, 4.5. fitxa; Jardueren CDa, 19. pista*

Abesti aski ezaguna da Ipar Euskal Herritik etorri zitzaigun. Maitasun kanta da jatorriz, eta, gaur egun, maiz erabiltzen dute bertsolariek doinu hori.

Azter dezagun partitura, beti bezala, aipagarria den zerbait dagoen jakiteko. Sei kortxeako neurrian idatzitako melodia da, hori adierazten baitute konpasaren hasieran agertzen diren bi zenbakiek. Hirugarren marran *b* bat idatzirik dago, kantu honetan agertzen diren *si* guztiak tonu erdiz jaitsi behar ditugula jakinarazteko. Kortxearen balioa duten isiluneak ere ikus daitezke han eta hemen. *Loturak* eta *puntu* batzuk ere bai. Partitura “konpleto” samarra, beraz, honako hau.

Abestia lantzeko orduan, ohiko prozedurari jarraituko diogu. Hainbeste kortxea bakarka ikusita, agian, norbait larrituko da, baina berehala bereganatuko dutelakoan gaude. Horrez gainera, beltzak eta kortxeak tartekatzean, bizitasun berezia hartzen du melodiak.

#### 4.6. Letra-zopa: “Ikurren letra-zopa”

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoan, 4.6. fitxa*

Jolas bat izan arren, lengoia musikalak erakutsi dizkigun zenbait ikurren erreposoa egiteko aukera daukagu letra-zopa honekin.

Lan-koadernoan dagoen pentagramako bi konpas horietan kokatu ditugu letra-zopan aurkitu beharreko hamabi ikurren izenak eta esanahiak. Ezkerretik hasita, hauek dira erantzunak:

- |                        |              |
|------------------------|--------------|
| 1. <b>Solen</b> ikurra | 7. Zuria     |
| 2. Lauko neurria       | 8. Lotura    |
| 3. Diesea/Sostenitua   | 9. Beltza    |
| 4. Kortxea             | 10. Bemola   |
| 5. Punttua             | 11. Biribila |
| 6. Kortxeaerdia        | 12. Da Capo  |

#### 4.7. Txirula jotzen ikasten: *Guadalajara*

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde txikian*

*Materiala: Musikako lan-koaderno, 4.7. fitxa; Jardueren CDa, 20. pista*

Mexiko aldetik iritsi zitzaigun kanta hau. Hiruko neurrian idatzia dago eta perkusiozko orkestratxo baten laguntzaz goatzeko aukeratu daukagu.

Perkusiozko musika-tresnek izango duten zeregina *ostinato* eran idatzi dugu, non danborrak eta triangeluak konpasaren lehen denbora markatuko duten eta klabeek bigarren eta hirugarren denbora ahulak. Gainerakoan aldaketa gehiegirik ez. **Fa#**, *loturak*, *isiltasun* luzeak, etab.

Ohiko prozedurari jarraituko diogu melodia barneratzeko: erritmoa landu *dan, dan, dan...* esanez eta txaloekin lagunduz, noten izenak erritmikoki irakurri eta txirula jo.

*Ostinatoa* lantzeko prozedura gogoratu: batetik, ahalik eta ikasle gehienek proba ditzatela perkusiozko tresna guztiak. Badakizue: espezialistarik ez dugu nahi gure gelan. Tresna bakoitza bakarka landu; gero, binaka eta, azkenik, hirurak batera. Ongi ateratzen denean, txirulari laguntzen hasiko dira.

Aurreko batean egin genuen bezala, eman denboratxo bat ikasleei partiturari behatzeko, eta hasi galderak egiten. Adibidez:

- |  |  |
|--|--|
| - Zenbat notek dute punttua?                                   | 5  |
| - Zenbat lotura daude?   | 2  |
| - Zenbateko iraupena izango du 6. konpaseko <b>sol</b> zuriak? | 5 taupadakoa                                       |
| - Eta 23. konpaseko <b>sol</b> zuriak?                         | 5 taupadakoa                                       |
| - Zenbat <b>fa</b> daude idatzita?                             | 3  |
| - Zenbat aldiz jo behar da <b>fa#</b> kanta osoan?             | 4 aldiz (lehen zatia errepikatu egin behar delako) |
| - Zenbat konpas interpretatu behar dira kanta osoa egiteko?    | 33   |

#### 4.8. Egia? Gezurra?

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Musikako lan-koaderno, 4.8. fitxa*

Bi ariketa jarri ditugu orrialde honetan. Lehenengoan, ikasleek esaldiak irakurri beharko dituzte, eta ondo pentsatu erantzuna idatzi aurretik. Guk proposatutako esakuneak “egia” ala “gezurra” diren erabaki beharko dute. Lehen lan hau amaitzean, denon artean, eta irakaslearen gidaritzapean, esaldi bakoitzaren arrazoiketa eta azterketa egingo dugu.

Hauek dira erantzunak:

1. G
2. E
3. G
4. G
5. E
6. G

Bigarren ariketarekin lengoia musikaleko ikurren errepasso txiki bat egingo dugu. Ezkerraldeko irudi bakoitzari dagokion izena idatzi behar diote eskuinaldean.

Hauek dira erantzunak:

1. Kortxeaerdia
2. Bemola
3. Biribila
4. Lauko neurria
5. Sostenitua edo diesea
6. Biribilaren isilunea
7. Zuriaren isilunea

#### 4.9. Txirula jotzen ikasten: *Gurea duk hau*

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 4.9. fitxa; Jardueren CDa, 21. pista*

Ahots taldeetan kantatzeko kanta aproposa dugu honako hau; bai kantatuz lantzeko eta baita txirulaz jotzeko ere. Hemen ere denek dena ikastea litzateke egokia, baina irakasle bakoitzak ikusi beharko du zer komeni zaion. Izan ere, lau talde egin behar dira eta bakoitzak partitura bat interpretatu behar du. Esperientzia berria izango da askorentzat eta komeni da prozedura egokiari jarraitzea inor ez dadin gaizki sentitu. Hau da gure proposamena:

- Lehen-lehenik melodia nagusia ikasiko dute ikasleek. (Lehenengo pentagrama).
- Ondoren, beste hiru pentagramen (A-B-C) betebeharra ikasleei ulertarazten saiatuko gara. 12 konpas ditu hiru pentagrama horietako bakoitzak. Baina ongi begiratzeko baduzue, ikusiko duzue bi konpas errepikatzen direla denbora guztian pentagrama bakoitzean. Beraz, bi konpasez osaturiko *ostinatoak* burutzea da talde bakoitzaren zeregina.

A izango da aurrena hasiko den taldea. SOL, MI / SOL-SOL, LA intonatu behar du denbora guztian. Ez du beste zereginik, bereari eutsi, eta kito.

A taldeak lau konpas egin dituenean hasiko da B taldea, eta SI, SOL / RE-RE, RE intonatu behar du denbora guztian.

C taldea izango da azkena hasiko dena. A eta B taldeek egiten dutenari ongi jarraitu beharko diote, noiz sartu jakiteko. Zortzi konpas jo arte isilik egon eta gero hasi behar dute. RE, RE, SI, SI / SOL, SOL, LA, LA intonatu behar dute.

Partituraren nondik norakoak ulertu ondoren, modulu guztiak praktikan jartzen hasiko gara. Nahiz eta erabakia irakasle bakoitzarena izan, ahal bada behintzat, edozer lan burutzeko gai izan behar dute ikasleek. Kasu honetan, lau ahotsak frogatzeko aukera emango diegu.

Kontuan eduki behar da A taldearen partiturak C taldekoarenak baino nota grabeagoak dituela eta, talde bakoitzean ikasle kopuru bera jartzen badugu, zerbait gutxiago entzungo direla ahots horiek.

Guk honela egingo genuke ikasleen banaketa:

% 40 melodia burutzeko.

% 25 A modulurako.

% 20 B modulurako

% 15 C modulurako.

### **Lan-koadernotik aparteko kanta: *Negua joan da***

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

*Materiala: Jardueren CDa, 22. pista*

(Orixe)

*Negua joan da, gaur udaberri,*

*Hoa egun beltza, hator egueldi (eguraldi).*

Estalki barruan euri eta haizeak,  
a(u)rkitzen zidazten hezur-mamiak,  
a(u)rkitzen zidazten hezur-mamiak,  
a(u)rkitzen zidazten hezur mamiak.

*Negua joan da...*

Ostosketan laster haitzulora ni,  
baita ere tximista nire atzetik,  
baita ere tximista nire atzetik,  
baita ere tximista nire atzetik.

*Negua joan da...*

Nire antz ardiak begiak uzkur,  
hausnarrean eta burua makur,  
hausnarrean eta burua makur,  
hausnarrean eta burua makur.

*Negua joan da...*

Joale hots geldi ta ituzurak,  
iluntzen zituzten artzain egunak,  
iluntzen zituzten artzain egunak,  
iluntzen zituzten artzain egunak.

*Negua joan da...*

Baina orain ardiak e(g)in zilipurdi,  
ta eragin bizkor zintzarriari,  
ta eragin bizkor zintzarriari,  
ta eragin bizkor zintzarriari.

*Negua joan da...*

Orixe euskal poetaren poesia hau hartu dugu melodia goxo bat sortu eta taldean kantatzeko. Kantatzeko zaletasuna sortzea da ikasturte honetako helburuetako bat. Talde guztiak batera kantatuko du lehenik, eta gero batzuek bertsoak eta beste batzuek errepikak egin ditzakete.

### **Lan-koadernotik aparteko kantak: *Diguli-digule***

*Lan egiteko era: Talde handian*  
*Materiala: Jardueren CDa; 23. pista*

#### **A**

Ene, lagun, diguli-digule,  
ene, lagun, diguli-digule,  
ene, maite, zatoz nirekin plazara.  
Ene, lagun, diguli-digule,  
ene, lagun, diguli-digule,  
zatoz, maite, nirekin dantzara.

#### **B**

Eskuak emanda, gerritik helduta,  
hartu nahi zaitut nire besoetan.  
Begiak argitan, irri goxoetan,  
maitasun hitzak ditut ezpainetan.

Aurreko batean aipatu genuen, adin honetako ikasleei kosta egiten zaiela dantza egitea, mutilei batez ere. Hala ere, irakaslearen zeregina da denak animatzea. Proposatzen ditugun pausoak, agian, konplexuak irudituko zaizkizue, baina ez da horrela. Jakina, oso zaila dela gorputz mugimendua paper batean idatzita adieraztea. Saiatuko gara ahalik eta argien adierazten.

Besoen eta oinen mugimenduak koordinatu nahi ditugu, baina, betiere, erritmoari ongi jarraituz. Melodia bihurria iruditzen bazaigu ere, azpiegitura erritmikoa oso erraza da, zortzi beltzez osatutako segida besterik ez baita.

Denon artean biribil bat osatuko dugu.

#### **A**

1. Besoak zabalduz, kriskitin bat jo bi eskuekin.
2. Besoak bularrean gurutzatuz, ezkerreko hanka aurrera.
3. Besoak zabalduz, ezkerreko hanka hasierako lekura.
4. Besoak behera.
5. Besoak zabalduz, kriskitin bat jo bi eskuekin.
6. Besoak bularrean gurutzatuz, eskuineko hanka aurrera.
7. Besoak zabalduz, eskuineko hanka hasierako lekura.
8. Besoak behera.

## **B**

Biribilean jarraitzen dugula, elkarri gerritik helduko diogu, korroa itxiz, eta eskuinera eta ezkerreko mugituko gara denok batera. Lau taupada edo beltz alde batera eta beste horrenbeste beste aldera:

- 1 – 2 – 3 eskuinaldera mugituz.
- 4 – ezkerreko hanka gora.
- 5 – 6 – 7 ezkeraldera mugituz.
- 8 – eskuineko hanka gora.

## **INTERLUDIOAN**

Erritmo-eskema berarekin jarraitzen dugu: 16 beltzez osatutako segida.

Lagunaren gerria askatu eta biribilean jarraitu:

- 1 – 2 – 3 – 4 norberaren bi eskuak elkartuz, ezkerreko sorbalda kolpatu.
- 5 – 6 – 7 – 8 norberaren bi eskuak elkartuz, eskuineko sorbalda kolpatu.
- 9 – 10 – 11 – 12 izterrak kolpatu.
- 13 – 14 – 15 – 16 ipurmasailak kolpatu.